

DUX

ESKOLA-HIZTEGIA



LATINA - EUSKARA - GAZTELANIA

LATÍN - VASCO - CASTELLANO

ES PROPIEDAD
JULIAN PEÑA
PRIMERA EDICIÓN

--

ISBN 978-84-697-1659-5

HIZTEGIAREN ERABILERA

Latin hitzak alfabeto ordenaren arabera agertzen dira.

Hitz bakoitza euskaraz lehendabizi eta gero gaztelaniaz itzulita dago, bi itzulpenak barra bikoitzez (//) banatuta.

Kategoria gramatikalak (maskulinoa, femeninoa, adizlaguna, izenordea...) adierazteko laburdurak erabili dira.

Batzuetan gidoi batek latin hitzaren zati osatzaileak bereizten ditu. Noizbait, parentesien artean latin hitzaren etimologia adierazi da bere esanahia hobeto uler dadin.

□ ikurrak esapide edo hitzaren zentzu bereziren bat erakuts dezake. Hemen ere, bi itzulpen, euskaraz eta gaztelaniaz, ematen dira.

> ikurrak ondoren agertzen den hitza ikustera deitzen du.

Aditz bakoitzaren ondoko zenbakiak jokaera adierazten du.

Aditz erregularren perfektua eta partizipioa ez dira adierazi.

Latin aditzak euskaratzeko, era burutua eta laguntzailearen indikatiboko orainaldiko singularreko hirugarren pertsona erabili ditugu.

Adibidez: **laxo** 1: zabaldu du, hedatu du; lasaitu du.

Baina: **ac-quiesco**, *quiēvi*, *quiētum* 3: lasaitu da; **per-crēb[r]esco**, *c[r]ēbui*, - 3: zabaldu da, hedatu da.

Kasu batzuetan, aditz bera bitara uler daiteke, iragangaitz nahiz iragankor gisa, bi laguntzailerekin adierazi duguna. Adibidez: **con-vertō**, *verti*, *versum* 3: itzuli da-du; bihurtu da-du // *volver(se)*, *hacer volver*; *cambiar(se)* en, *convertir(se)* en; *traducir*.

Jakina, latin aditza pasiboan edo forma bihurkarian agertzen bada, ikasleak aditz laguntzailea egokitu behar izango du.

Hiztegi honen ezaugarri nagusia hau da, batxilergoko ikasleei zuzenduta dagoela, beren azterketak gainditu ondoren latinezko literaturan sakontzeko asmo gutxi dutenei. Hori dela eta, ahalik eta itzulpen ulergarrienak ematen saiatu gara.

Latin hitz bakoitzetik bere zentzurik ohikoenak, bere oinarrizko esanahiak bilatu ditugu eta alde batera utzi hitzak testu literarioetan, metafora edo metonimiaren bidez, har zitzakeen adiera bitxiak.

Ikasleak ez du eskura baliokide ederrak hautatzeko hainbat aukera, baizik eta hitzez hitzezko itzulpen zuzenak egiteko tresna segurua.

Hitz arkaiko, tekniko, geografiako edo latin berantekorik ez dugu jaso.

Hiztegi honetan 6.000 bat hitz agertzen dira. Beste hiztegi batzuekin alderatuta, norbaitek gutxi direla pentsa dezake, baina eskolako testuetan egindako maiztasun-kalkuluaren arabera ehun hitz erabilienek testuen %50 osatzen dute; mila hitz erabilienek %80; eta beste 47.000 hitz, aldiz, %1 baino ez dira. Beraz, hiztegi honekin erraz itzul daitezke klasean lantzen diren egile klasikoekin testu gehienak.

GUÍA DE USO DEL DICCIONARIO

Las palabras latinas aparecen en orden alfabético.

Cada palabra está traducida al vasco y luego al castellano, ambas traducciones separadas por una doble barra (//).

Hemos usado abreviaturas para indicar las categorías gramaticales: masculino, femenino, adverbio, pronombre, etc.

A veces un guión separa las partes componentes de la palabra latina. En alguna ocasión, se ha indicado entre paréntesis la etimología de la palabra latina para ayudar a entender mejor su significado.

El signo □ señala una locución, modismo o un uso especial de la palabra. También aquí se ofrece una doble traducción.

El signo > envía al usuario a mirar el significado de la palabra que aparece a continuación.

El número que sigue a cada verbo indica la conjugación.

No se indica el perfecto ni el participio en los verbos que los tienen regulares.

Para la traducción de los verbos latinos al vasco hemos usado la forma perfecta y la tercera persona del singular del verbo auxiliar en presente de indicativo.

Por ejemplo: **laxo** 1: zabaldu du, hedatu du; lasaitu du; askatu du; arindu du, mehetu du, gutxitu du.

En cambio: **ac-quiesco**, *quiēvi*, *quiētum* 3: lasaitu da; **per-crēb[r]esco**, *c[r]ēbui*, - 3: zabaldu da, hedatu da.

En algún caso, el mismo verbo admite construcción transitiva e intransitiva, siendo las dos igualmente posibles, lo que se ha indicado con dos auxiliares. Por ejemplo: **con-vertō**, *verti*, *versum* 3: itzuli da-du; bihurtu da-du // volver(se),

hacer volver; cambiar(se) en, convertir(se) en; traducir.

Por supuesto, si el verbo latino aparece en voz pasiva o forma refleja, el alumno deberá emplear la forma verbal que corresponda en cada caso.

Una característica esencial de este diccionario es que está dirigido a alumnos de bachillerato que no van a profundizar en la literatura clásica una vez superados sus exámenes. Por eso, hemos intentado que las traducciones sean lo más claras y sencillas posibles.

De cada palabra latina, hemos buscado sus usos habituales, su significado básico, y dejado de lado los valores peculiares que dicha palabra pueda alcanzar en contextos literarios mediante metonimia o metáfora. No ofrecemos al alumno variadas posibilidades de elección entre cultos sinónimos, sino un instrumento seguro para una traducción literal.

No aparecen palabras arcaicas, técnicas, geográficas, ni de la baja latinidad.

En este diccionario se recogen unas 6.000 palabras. Pueden parecer pocas comparadas con lo que ofrecen otros diccionarios, pero según los cálculos de frecuencia realizados en textos escolares resulta que un centenar de palabras alcanza el 50% de frecuencia del vocabulario total; con un millar de términos se llega al 80% y 47.000 palabras no representan sino el 1% de frecuencia de la totalidad del vocabulario empleado en dichos textos. Por tanto, este diccionario permite traducir de modo fácil la mayoría de los textos de los autores clásicos que se ven en clase.

LABURDURA-ZERRENDA // LISTA DE ABREVIATURAS

	EUSKARA	CASTELLANO
ab.	ablatibo	ablativo
ac.	akusatibo	acusativo
act.	aktibo	activa
adj.	adjektibo	adjetivo
adlg.	adizlagun, adberbio	adverbio
adv.	adizlagun, adberbio	adverbio
ak.	akusatibo	acusativo
akt.	aktibo	activo
bihurk.	bihurkari	reflexivo
bok.	bokatibo	vocativo
conj.	juntagailu	conjunción
dat.	datibo	dativo
def.	defektibo	defectivo
dekl. ez.	deklinaezin	indeclinable
demostr.	erakusle	demonstrativo
enklitiko	enklitiko	enclítico
erak.	erakusle	demonstrativo
erlat.	erlatibo	relativo
excl.	harridurazko	exclamativo
f	femenino	femenino
gald.	galdetzaile	interrogativo
gen.	genitibo	genitivo
gralte.	gehienetan	generalmente
harrid.	harridurazko	exclamativo
indef.	zehaztugabe	indefinido
inperat.	inperatibo	imperativo
inpers.	inpersonal	impersonal
interj.	interjekzio	interjección
interr.	galdetzaile	interrogativo
interr. indir.	zehir-galdera	interrogativa indirecta
interr. dir.	galdera zuzen	interrogativa directa
intr.	iragangaitz	intransitivo
izord.	izenorde	pronombre
junt.	juntagailu	conjunción
konp.	konparatibo	comparativo
m	maskulino	masculino

n	neutro	neutro
nom.	nominatibo	nominativo
pas.	pasibo	pasiva
perf.	burutu, perfektu	perfecto
pers.	pertsona	persona
perts.	pertsona	persona
pl.	plural	plural
pp.	<i>participium perfectum</i> , partizipio perfektu	participio perfecto
prep.	preposizio	preposición
pres.	<i>praesens</i> , orainaldi	presente
p. pres.	<i>participium praesens</i> , orainaldiko partizipio	participio presente
pron.	izenorde	pronombre
relat.	erlatibo	relativo
refl.	bihurkari	Reflexivo
sasiprep.	sasipreposizio	Seudopreposición
seudoprep.	sasipreposizio	Seudopreposición
sg.	singular	Singular
superl.	superlatibo	Superlativo
v.	aditz	Verbo
zehaztug.	zehaztugabe	Indefinido

A

ā, ab, abs: prep. ab., funtsezko zentzua banatzea, urruntzea da: -tik, -(en)gandik. Bereizketa, kentze edo gabezia adierazten duten aditz, adjektibo edo izenekin erabil daiteke. Jatorria, abiapuntu, urruntasun, bitartea adieraz ditzake. Esaldi pasiboetan nondik datorren ekintza edo subjektu agentea adieraz dezake // prep. de ab., su significado fundamental es de separación o alejamiento: de, desde. Se usa con cualquier verbo, adjetivo o nombre que indique separación, ausencia, privación. Puede indicar origen, procedencia, punto de partida, distancia. En oraciones pasivas puede indicar el origen de la acción o complemento agente: por.

ab-dico 1: abdikatu du, (kargu bati) uko egin dio // abdicar, renunciar.

ab-do, *didi, ditum* 3: ezkutatu du, gorde du // ocultar, esconder.

ab-dūco, *duxi, ductum* 3: berarekin eramán du, kendu du, baztertu du, urrundu du; bereizi du // llevarse, quitar, retirar, apartar; separar.

ab-eo, *ii, itum* 4: joan da, alde egin du, urrundu da // irse, alejarse.

ab-eram, ab-ero... > *absum*.

ab-erro 1: desbideratu da, -tik urrundu eta nora gabe ibili da; (atsekabeak une batez) burutik kendu ditu // extraviarse, apartarse; andar perdido y lejos de; distraerse (de las penas).

ab-est... > *absum*.

ab-hinc: duela (denborazko ak. edo ab.ekin) // hace (con ab. o ac. de tiempo);

□ *abhinc annos decem:* duela hamar urte // hace diez años.

ab-horro, *ui* 2: -tik urrundu da higuinez, nazka izan dio, gorroto izan dio; -ekin ez da bat etorri, -en aurka egon // apartarse con horror de, sentir aversión hacia; ser incompatible con, ser contradictorio con.

ab-icio, *iēci, iectum* > *abiicio*.

ab-igo, *ēgi, actum* 3 (*ab, ago*): kanporatu du, urrundu du // echar fuera, expulsar.

abii, perf. > *abeo*.

āb-iicio, *iēci, iectum* 3 (*ab, iacio*): urrun jaurti du, bota du // echar lejos, tirar.

āb-iūro 1: zin eginez ukatu du // negar con juramento.

ablātus, *a, um, pp.* > *aufero*.

ab-luo, *lui, lūtum* 3: garbitu du, araztu du // lavar, borrar, purificar.

ab-nuo, *nui, - [abnuitūrus]* 3: buruaz ezetz esan du, buruaz ukatu du // negar con un movimiento de cabeza.

ab-oleo, *ēvi, itum* 2: suntsitu du, ezereztu du; ezeztatu du // destruir, aniquilar; abolir.

ab-olesco, *ēvi, -* 3: desagertu da // extinguirse.

abolēvi, perf. > *aboleo* eta *abolesco*.

aborīgenes, *um* m pl.: aborigenak (toki bateko lehen biztanleak); Italiako lehen biztanleak // aborígenes (primeros habitantes de un país); primeros habitantes de Italia.

ab-rādo, *rāsi, rāsum* 3: karrakatu du, erauzi du; (ilea) arradatu du, bizarra egin du; ebatsi du // raer, raspar; rapar; hurtar.

ab-ripio, *ripui, reptum* 3 (*ab, rapio*): erauzi du, (indarrez) kendu du // arrancar, arrebatar;

□ *se abripit*: itzurtzen da // se escapa.

ab-rogo 1: baliogabetu du; kendu dio // anular; quitar.

ab-rumpo, *rūpi, ruptum* 3: urratu du; (indarrez, bat-batean) eten du; hautsi du // separar violentamente; interrumpir bruscamente; quebrantar.

abs > *a, ab, abs*.

abs-cēdo, *cessi, cessum* 3: alde egin du, urrundu da // irse, alejarse.

abs-cīdi, perf. > *abs-cīdo*.

abs-cīdi, perf. > *abs-cīdo*.

abs-cīdo, *cīdi, cīsum* 3 (*abs, caedo*): ebaki du, moztu du, banandu du; kendu du // cortar, separar; quitar.

ab-scīdo, *scīdi, scīsum* 3: urratu du, erauzi du // desgarrar, arrancar.

abs-cīssus, *a, um, pp.* > *abs-cīdo*.

abs-cīsus, *a, um, pp.* > *abs-cīdo*
malkartsu, latz; zakar // abrupto; intratable.

ab-sens, *ntis*, p. pres. > *abs-um*
(bertan, tokian, gure artean) ez dagoen // ausente.

ab-sisto, *stīti*, - 3: -tik urrundu da, aldendu da; -z etsi du // alejarse de, retirarse de; desistir de.

ab-solvo, *solvi, solūtum* 3: askatu du; absolbitu du, errugabetu du; bukatu du // soltar, librar, absolver; acabar.

ab-sonus, *a, um*: (soinu) latz, harmoniagabe; bat ez datorren // disonante; discordante.

abs-terreo, *ui, itum* 2: beldurtuz urrutiratu du, uxatu du // espantar, ahuyentar.

abs-tineo, *tinui, tentum* 2 (*abs, teneo*): -tik urrundu du, -tik urrun mantendu du; -i uko egin dio, -i utzi dio // apartar, mantener alejado; abstenerse de.

abstīti > *absisto*.

ab-straho, *traxi, tractum* 3: urrundu du, banandu du; (indarrez) eraman du // apartar, separar, arrancar.

abstuli, perf. > *aufero*.

ab-sum, *ā-fui*, - [*āfutūrus*]: -tik urrun egon; ez egon; (-ik) gabe egon; falta izan da, huts egin dio; -tik desberdina da // estar alejado, distar; estar ausente; estar libre de; faltar; ser diferente de.

ab-surdus, *a, um*: soinugaitz, disonante; desegoki, bat ez datorren; zentzugabe; ezgai // disonante, discordante; absurdo, disparatado; inepto.

abundo 1: ugari izan da; gainezka egin du // abundar; desbordarse.

ab-ūtor, *ūsus sum* 3: gaizki erabili du; xahutu du // abusar; consumir.

ac > *atque*.

ac-cēdo, *cessi, cessum* 3 (*ad, cedo*): -ra hurbildu da, inguratu zaio, -ra iritsi da; erantsi zaio; -ekin bat egin du // acercarse a, llegar a; añadirse a; adherirse a.

ac-cendo, *cendi, census* 3: piztu du, irazeki du // encender.

accēpi, perf. > *accipio*.

acceptus, *a, um, pp.* > *accipio*
atsegin, ondo ikusi(a) // grato, bien visto.

accessi, perf. > *accedo*.

accessus, *a, um*, pp. > *accedo*.

accessus, *ūs* m: iriste, etorrera; sarbide, sarrera // llegada; acceso, entrada.

ac-cido, *cidī*, - 3 (*ad, cado*): (-en ondoan, -n, -en aldera, -en gainera) erori da; (-en belarrietara) iritsi da; gertatu zaio-da (gehienetan zerbait desatsegin) // caer (cerca, en, hacia, sobre); llegar (a los oídos de); suceder (gralte, algo malo).

ac-cingo, *cinxī, cinctum* 3: gerrian lotu du; (pas. eta bihurk.) gerrikatu da, -z hornitu da, prestatu da // ceñir; (pas. eta refl.) ceñirse, proveerse de, disponerse para.

ac-cipio, *cēpi, ceptum* 3 (*ad, capio*): hartu du, jaso du; hauteman du, entzun du // recibir; tomar; percibir, oír; acoger.

ac-clāmo 1: kontrako oihuak egin ditu, aldeko oihuak egin ditu, txalokatu du, oihuka erantzun du; aldarrikatu du // gritar en contra, aclamar, responder por aclamación; proclamar.

ac-curro, [*cu*]*curri, cursum* 3: lasterka joan da // acudir corriendo.

accūsātio, *ōnis* f: salaketa, akusazio // acusación.

ac-cūso 1 (*ad, causa*): salatu du // acusar.

ācer, *ācris, ācre*: zorrotz (arma zorrotza, begirada zorrotza, adimen zorrotza, jarrera zorrotza, ke begietan zorrotza...) // agudo, afilado, cortante, acre.

acerbē: garrakzi, gogor, saminki // amargamente, duramente, penosamente.

acerbitās, *ātis* f: garratzasun, mingostasun; laztasun; ezbehar // amargura, amargor; acritud, aspereza; desgracia.

acerbus, *a, um*: garratz, mingots // áspero, amargo.

acervus, *i* m: pilo, pila, mordo // montón, cúmulo.

acētum, *i* n: ozpin // vinagre.

acidus, *a, um*: garratz, samini; gogaikarri; mingarri // ácido, agrio; molesto; mordaz.

aciēs, *ēi* f: (arma baten) aho, punta; (adimenaren edo begiradaren) zorrotzasun; (borrokarako) formazio, (borrokarako) lerro; borrokarako ilaretan eraturako armada; borroka, gudu-zelai // filo, punta (de un arma); agudeza (de la mente, de la vista); formación (de combate); línea (de combate); tropa formada en orden de batalla; batalla, campo de batalla;

□ *in acie*: borrokan, lerroan, soldadutzan // en combate, en la línea de combate, en el servicio militar;

□ *aciem instruere*: (borrokarako) lerroak eratu ditu // formar filas (en orden de combate);

□ *prima acies*: lehen lerro, fronte // primera línea, frente.

ac-quieto, *quiēvi, quiētum* 3: atsedean hartu du; lo egin du; lasaitu da; atsegin hartu du; baietsi du, onetsi du, bat etorri da // descansar; dormir; morir; hallar consuelo en, complacerse en; asentir.

ac-quiuro, *quisīvi, quisītum* 3 (*ad, quaero*): eskuratu, lortu, bereganatu du, neureganatu dut (eta antzekoak) // adquirir, obtener.

ācris > *acer*.

ācriter: zorrotz, zorrozki // agudamente, penetrantemente, severamente.

actio, *ōnis* f: ekintza, egintza, jardura, egite; hizlariaren jokaera (hitzaldia ematean; jarrera, keinua eta ahotsa har-

tzen ditu); auzitegiko ekintza, prozesu, akzio, eskari; magistratuen ekintza, proposamen, mozio // acción, actividad; acción del orador (al pronunciar el discurso, incluye actitud, gesto, voz); acción ante los tribunales, proceso, acción judicial; actividad de los magistrados, proposición, moción.

actuārius, *a, um*: eramanerraz // fácil de llevar;

□ *navis actuaria*: ontzi arin // nave ligera.

actus, *a, um*, pp. > *ago*.

acta, *ōrum* n pl: egintzak, egitandiak; arautegi; agiriak // actos, hazañas; ordenanzas; actas.

actus, *ūs* m: mugimendu, higidura; keinu; egintza, ekintza, jarduera; ekitaldi // movimiento, impulso; ademán; acto, acción, actividad.

acuo, *ui, ūtum* 3: zorroztu du; akuilatu du // afilar, aguzar; estimular.

acūtē: zorrozki, zolitasunez // agudamente.

acūtus, *a, um*, pp. > *acuo*

zorrotz, ahodun, puntadun // agudo, afilado.

ad: prep. ak. -ra, -rantz, -(en)gana, -(en)ganantz; -en ondora, aldera; arte, -raino, -(en)ganaino; -tzera, -tzeko, -rako; -en etxean, -enean // prep. de ac. a, hacia; junto a; hasta; para; en casa de.

adactus, *a, um*, pp. > *adigo*.

ad-do, *didi, ditum* 3: erantsi du, gehitu du, ezarri du // añadir, aplicar.

ad-dūco, *duxi, ductum* 3: eraman du, gidatu du // llevar, conducir; inducir.

adēgi, perf. > *adigo*.

adēmi, perf. > *adimo*.

ademptus, *a, um*, pp. > *adimo*.

ad-eō: adlg. hainbestearaino, hainbeste, hain; arte; are gehiago; edo hobeto esan // adv. hasta tal punto, tanto, tan; hasta que; aún más; o mejor;

□ *adeo ut*: hainbeste... non, hain... non // tanto que, tan... que;

□ *adeo usque dum*: arte // hasta que.

ad-eo, *ii, itum* 4: hara joan da, hurbildu da, -gana jo du, bisita egin dio // ir hacia, acercarse a, ir a ver.

adepus, *a, um*, pp. > *adipiscor*.

ad-eram, **ad-ero**, **ad-est**... > *adsum*.

adf... > *aff*...

adfui, perf. > *adsum*.

adg... > *agg*...

ad-haereo, *haesi, haesum* 2: -i atxikita egon, -i josita egon, -i lotuta egon, -en ondokoa izan da // estar adherido a, estar unido a, ser vecino de.

ad-hibeo, *bui, bitum* 2 (*ad, habeo*): erantsi dio, -en gainean, -en ondoan ezarri du; erabili du; eman du; etorriarazi du // aplicar a, poner junto a, añadir; emplear; proporcionar; hacer venir;

□ *sic se adhibet*: horrela jokutzen du // así se porta.

ad-hortor 1: (hitz suharrez) adoretu du, bultzatu du, akuilatu du // exhortar, animar.

ad-hūc: adlg. orain arte, oraindik; honaino // adv. hasta ahora, todavía; hasta aquí.

ad-icio, *iēci, iectum* > *adiicio*.

ad-igo, *ēgi, actum* 3 (*ad, ago*): -ra eraman du, -ra bultzatu du; -ra behartu du // llevar a, empujar a; obligar a.

adii, perf. > *adeo, adii, aditum*.

ād-īcio, *iēci, iectum* 3 (*ad, iacio*): jaurti du, bota du; erantsi dio // lanzar, echar; añadir.

ad-īmo, *ēmi, emptum* 3 (*ad, emo*): kendu du // quitar.

ad-īpiscor, *epts sum* 3: lortu du, erdietsi du // conseguir, obtener.

aditus, *a, um, pp.* > *adeo, adii, aditum*.

aditus, *ūs* m: sarbide, sarrera; hurbiltze; aukera // acceso, entrada; aproximación; posibilidad.

ād-iūdico 1: esleitu dio // adjudicar.

ād-iungo, *iunxi, iunctum* 3: lotu du, elkartu du, uztartu du; erantsi du // atar, juntar, unciar; agregar; asociar.

ād-iuvo, *iūvi, iūtum* 1: lagundu dio; lagungarri izan da // ayudar; contribuir, ser útil.

adl... > *all...*

administrātio, *ōnis* f: administratze, administrazio, zuzentze, gobernu // administración, dirección.

ad-ministro 1: administratu du, -z arduratu da, kudeatu du; zuzendu du; (kargu bat) betu du, (kargu batean) aritu da; (agindua, egitekoa) betu du // administrar, ocuparse de; dirigir; desempeñar; ejecutar.

admīrābilis, *e*: miresgarri, miragarri // admirable, maravilloso.

admīrātio, *ōnis* f: mirespen // admiración.

ad-mīror 1: miretsi du, -z miretsi da, miretsirik gelditu da // admirar, admirarse de.

ad-mitto, *mīsi, missum* 3: -ra bidali du; harrera eman dio, audientzia eman dio; onartu du; (gaztakeria) egin du // lanzar hacia; admitir, dar audiencia; aceptar, permitir; cometer (un crimen);

□ *equo admisso*: lauhazka bizian // a galope tendido.

ad-modum: adlg. oso, asko, erabat // adv. muy, mucho, del todo.

ad-moneo, *monui, monitum* 2: ohartarazi du, adierazi du; gogorarazi du // advertir, avisar; recordar, hacer recordar.

ad-moveo, *mōvi, mōtum* 2: -rantz mugitu du, hurbildu du, ezarri dio // mover hacia, acercar, aplicar.

adn... > *ann...*

ad-oleo, *olui, -* 2: lurrundu du; (jainko-entzat eskaintza) erre du; (sakrifizioak eskaintzeko lekua) kez estali du; erre du; piztu du // convertir en vapor; quemar (las ofrendas para los dioses); cubrir de humo (el lugar del sacrificio); quemar; encender.

ad-olesco, *olēvi, ultum* 3: hazi da, handitu da; garatu da; sendotu da // crecer, desarrollarse, robustecerse.

ad-orior, *ortus sum* 4: eraso dio, oldartu zaio; -i ekin dio; ahaleginu da; -engana hurreratu da // acometer, atacar, asaltar; emprender; intentar; abordar a.

ad-ōro 1: otoitz egin du; gurtu du // suplicar (a un dios), adorar.

adortus, *a, um, pp.* > *adorior*.

adp... > *app...*

adr... > *arr...*

ads... > *ass...*

adsc... > *asc...*

adsp... > *asp...*

adst... > *ast...*

ad-sum, *ad-fui, -*: aurrean, bertan egon, hurbil egon; agertu da, azaldu da; lagundu dio; aldekoa izan da // estar

presente, estar cerca; presentarse, comparecer; asistir; ser propicio.

adt... > *att...*

adulātor, *ōris* m: losintxari, lausengari // adular.

adulescens, *ntis* m eta f: nerabe, gazte (17 urtetik 30era) // adolescente, joven (de 17 a 30 años).

adulescentia, *ae* f: nerabezaro; nerabetasun; gaztaro; gaztetasun; gazte(ak) // adolescencia, juventud.

adūlor 1: losintxatu du, lausengatu du, balakatu du, laztandu du // adular, halagar; acariciar.

adultus, *a, um*, pp. > *adolesco*
heldu, hazi(a) // adulto, crecido.

ad-ūro, *ussi, ustum* 3: gaingiroki erre du, garreztatu du // chamuscar, tostar.

ad-venio, *vēni, ventum* 4: iritsi da, heldu da // llegar.

advento 1: hurbildu da // acercarse a.

adventus, *a, um*, pp. > *advenio*.

adventus, *ūs* m: etorrera // venida, llegada.

adversus edo **adversum**: prep. ak. -en aurka, -en kontra, -en aurrean; -rako, -(en)ganako, -i dagokionez; adlg. aurka, bidera // prep. de ac. contra, frente a; delante de; para con, con relación a; adv. enfrente, al encuentro.

adversus, *a, um*, pp. > *adverto*
aurrez aurreko, parez pareko; aurkako, kontrako // opuesto, puesto enfrente; desfavorable.

ad-vertō, *verti, versum* 3: -ra zuzendu du, -ra itzuli du; -i kasu egin dio, -i gogo eman dio, nabaritu du, ohartu da // dirigir a, volver hacia; prestar atención a, dirigir (su mente), advertir;
□ *animum adverto* > *animadverto*.

ad-vesperascit, *rāvit* 1 (inperts.):
iluntzen ari da, gautu da // anochece.

ad-vocātio, *ōnis* f: (legelari baten) laguntza, aholku // asistencia, consulta (de un abogado).

ad-voco 1: deitu dio-du, dei egin dio // llamar, convocar.

adytum, *i* n: santutegi, tenpluko alderik gordeena // sagrario, la parte más reservada del templo.

aedēs edo *aedis, is* f: tenplu // templo.

aedēs, *aedium* f pl.: etxe (handi eta dotore) // casa, mansión.

aedificium, *ii* n: eraikin // edificio.

aedifico 1 (*aedes, facio*): eraiki du // edificar.

aedīlis, *is* m (*aedes*): edil, udalaren administrazioa bere ardurapean zuen magistratu // edil, magistrado que cuidaba de la administración municipal.

aeger, *gra, grum*: gaixo, eri; mingarri, atsekabetsu // enfermo, doliente; doloroso, penoso.

aegrē: ozta-ozta, nekez; gogoz kontra, gaitziturik // penosamente, a duras penas, difícilmente, con desagrado.

aegritūdo, *inis* f: gaixotasun; alditxar, ondoez; atsekabe // enfermedad, indisposición; pesar.

aegrōto 1: gaixorik egon // estar enfermo.

aegrōtus, *a, um*: gaixo, eri // enfermo.

aemulātio, *ōnis* f: lehia, norgehiagoka; berdindu nahi(a) // emulación, rivalidad.

aemulus, *a, um*: imitatzaile, lehiakide, aurkari // émulo, rival, competidor.

aēneus, *a, um*: kobrezko; brontzezko // de cobre; de bronce.

aequābilis, *e*: berdin, berdindu(a), zuzen; betiberdin, aldaketarik gabe(ko) // igual, igualado, equitativo; constante, uniforme.

aequābiliter: era berean, berdin, zuzenki // con igualdad, equitativamente.

aequālis, *e*: berdin; adin bereko, garaikide; kide, antzeko; konstante, aldatugabe, beti-bateko, era bereko; lau // igual; de la misma edad, contemporáneo; constante, uniforme, parejo; llano.

aequē: halaber, era berean, berdin; zuzen // igualmente, del mismo modo; equitativamente;

□ *aeque ac, aeque atque*: bezala // lo mismo que.

aequitās, *ātis f*: berdintasun; oreka, alderdikieririk ez(a); zuzentasun, gogoberdintasun // igualdad, ecuanimidad, equidad.

aequo I: berdindu du // igualar, allanar.

aequor, *oris n*: zabaldi, ordoki; (itsasoaren azal laua) itsaso // llanura; (superficie plana del) mar.

aequus, *a, um*: lau; berdin, berdindu(a); aldeko, egoki; zuzen, bidezko; bare, neurritsu // llano; igual, igualado; favorable, oportuno; justo, equitativo; sereno, moderado.

aequum, *i n*: ordoki; zuzena // llanura; lo justo.

āēr, *āeris* [ak. *āera*] *m*: aire // aire.

aerārius, *a, um*: brontzezko; kobrezko; diruari dagokion, diru- // de bronce; de cobre; relativo al dinero.

aerārium, *ii n*: herri-altxor // erario, tesoro público.

aerātus, *a, um*: brontzeztatu(a) // cubierto de bronce;

□ *navis aerata*: brontzezko muturra duen ontzi // nave con espolón de bronce.

aereus, *a, um*: brontzezko, brontzedun, brontzeztatu(a) // de bronce, adornado con bronce.

aes, *aeris n*: kobre; brontze; as (txanpon); diru; soldata // cobre; bronce; as (moneda); dinero; sueldo;

□ *aes alienum*: zorrak // deudas.

aestās, *ātis f*: uda; udaldi // verano.

aestimo I: balioztatu du, balioa finkatu dio; aintzat hartu du, estimatu du; uste izan du // estimar, valorar, apreciar; considerar.

aestivus, *a, um*: udako, udaldiko // estival, veraniego, de verano.

aestiva, *ōrum n pl.*: udako kanpamentu // campamento de verano.

aestuārium, *ii n*: estuario, padura, urmael // estuario, marisma, laguna.

aestuo I: garretan egon; bero-bero egon, sutan egon, irrikaz egon; asaldatu da, aztoratu da; irakin du // alzarse en llamas; estar ardiente; agitarse, hervir.

aestus, *ūs m*: bero handi, galda; uhinaldi, itsaski; irrika, kar // ardor; oleaje, marejada; apasionamiento.

aetās, *ātis f*: adin; bizitza, bizialdi; aro, garai, gizaldi // edad; vida; tiempo, época, generación;

□ *aetatem agere*: bizitza igaro du // pasar la vida.

aeternitās, *ātis f*: betikotasun // eternidad.

aeternus, *a, um*: betiereko, betiko // eterno.

aethēr, *eris* [ak. *-era*] *m*: zeru, atmosfera, eter, aire // cielo, atmósfera, éter, aire.

aevum, *i n*: betikotasun, denbora amaigabe; bizialdi, adin; aro, garai // eternidad; tiempo ilimitado; tiempo de vida, edad; época.

affātus, *a, um*, pp. > *affor*.

affēci, perf. > *afficio*.

affectus, *a, um*, pp. > *afficio*

prestatu(a); gaixotu(a), ahuldu(a), hondatu(a); ia bukatu(a); (ab.ekin) -dun, -tu(a), -k jota(ko) // dispuesto, preparado; enfermo, debilitado, arruinado; casi acabado; (con ab.) dotado de, afectado por;

□ *affectus praemio, senectute...*: saritu(a), zahartu(a)... // premiado, envejecido...

affectus, *ūs m*: jaidura, gogo-aldarte; nahitasun, grina // inclinación, estado de ánimo; afecto, pasión.

af-fero, *at-tuli, al-lātum* 3: eraman du, ekarri du; -en berri eman edo ekarri du; (aitzakia, arrazoia ekarri du) argudiatu du, arrazoitu du // llevar, traer, aportar, producir; (llevar una noticia) anunciar; (aportar un pretexto) alegar;

□ *se affert*: -ra doa // se traslada da.

af-ficio, *fēci, fectum* 3 (*ad, facio*): erasan dio, eragin dio, halako egoera batean (ona nahiz txarra) jarri du, hunkitu du; ahuldu du, -z hornitu du // afectar, poner en un estado determinado, afligir; debilitar; proveer, dotar de;

□ *praemiis, poenā, laetitiā, exilio, vulnere...* *afficere*: saritu, zigortu, poztu, herbesteratu, zauritu du... // premiar, castigar, alegrar, exiliar, herir...

af-finis, *e*: mugakide; gaizkide; (ezkon-tzazko) ahaide // límite; cómplice; pariente (por afinidad).

af-firmo 1: ziurtatu du, finkatu du, baieztatu du // confirmar, afianzar, afirmar.

af-fligo, *flixi, flictum* 3: -en kontra txikitu du, -en aurka botatu du; erorarazi du, hondatu du; atsekabetu du // estrellar, lanzar contra; derribar, abatir; afligir.

af-flo 1: -ra putz egin du, putz egin dio; jariatu; goiargitu du // soplar hacia, soplar sobre; exhalar; inspirar.

af-fluo, *fluxi, fluxum* 3: -ra isuri da; ugari etorri dira; ugari izan ditu // afluir, fluir hacia; abundar en.

af-for, *ātus sum* (def.) 1: hitz egin dio, esan du // hablar, dirigir la palabra, decir.

affui, perf. > *adsum, adfui*.

āfui, perf. > *absum, abfui*.

agellus, *i m*: alortxo, landatxo, sorotxo // campo pequeño.

ager, *agri m*: alor, landa, soro; lurralde // campo; territorio.

ag-ger, *eris m*: lubeta, mota guztietako gai edo hondarrez egindako meta, lurrezko hesi, lurrezko goragune, ezponda // montón de materiales de cualquier clase; tierra levantada para atrincheramientos, terraplén; dique, calzada.

ag-gredior, *gressus sum* 3 (*ad, gradior*): -ra joan da, -(en)gana joan da, hurbildu da; limurtzen saiatu da; eraso dio; ekin dio // ir hacia, acercarse; tantear, intentar convencer; atacar; emperder.

ag-grego 1 (*ad, grex*): gehitu du, erantsi du, gaineratu du; batu du // añadir, agregar.

aggressus, *a, um*, pp. > *aggredior*.

agilis, *e*: gidaeraz; arin, bizkor // fácil de conducir; ágil, ligero, veloz, activo.

agito 1: gidatu du, aurrera eramán du, mugitu du, mugiarazi du; astindu du, inarrosi du, eragin dio, erabili du, hara-hona mugitu du, hara-hona eramán du; aztoratu du, akuilatu du; jazarri du, oinazetu du; -n jardun du, egin du, ospatu du; eztabaidatu du; gogoan erabili du; (denbora, bizitza) igaro du; jokatu du, portatu da // conducir, empujar hacia delante, mover, poner en movimiento; agitar, remover, mover de un lado a otro, llevar de un lado a otro; excitar; perseguir, atormentar; ejercer, efectuar, celebrar; discutir; agitar en la mente, mover en el ánimo; pasar (el tiempo, la vida); portarse, comportarse.

agmen, *inis* n (*ago*): zutabe, gudaroste (ibileran); abiada, ibilera; saldo, samalda, aldra, artalde // ejército en marcha, columna; marcha, curso; multitud, bandada, rebaño;

□ *primum agmen*: aurrealde, abangoardia // vanguardia;

□ *novissimum agmen*: atzealde // retaguardia.

ag-nosco, *ag-nōvi*, *ag-nitum* 3: ezagutu du // reconocer.

agnus, *i* m: arkume, bildots // cordero.

ago, *ēgi*, *actum* 3: (aberea edo gizakia) eramán du, gidatu du, (afera, kontu bat) eramán du, (denbora, bizitza) eramán du; jokatu du; aritu da // llevar, conducir (un animal o a una persona), llevar (un asunto, negocio, tipo de vida); actuar; tratar; portarse.

agrestis, *e*: landako, landa-; nekazari; basati, landugabe // campestre; campesino; agreste, inculto.

agri, gen. > *ager*.

agri-cola, *ae* m: nekazari, laborari // agricultor, labrador.

āio, *ais*, *ait* (def.): baietz dio; diot, diozu, dio // dice que sí; digo, dices, dice.

āla, *ae* f: hego, hegál // ala.

alacer, *cris*, *cre*: alai, zoli // alegre, vivo, brioso.

alacritās, *ātis* f: bizitasun, zolitasun, alaitasun // viveza, alegría.

albus, *a*, *um*: zuri (hits) // blanco (mate).

ālea, *ae* f: dado-joko, zorizko joko; zori, zorte, arrisku, ezbai // juego de dados, juego de azar; suerte, riesgo, incertidumbre.

āles, *itis* m eta f: hegodun; hegazti // alado; ave.

algeo, *alsi*, - 2: hotzak egon // sentir frío.

aliēnus, *a*, *um*: besteren, -ena ez den; arrotz; aurkako, aldeko ez den // ajeno; extraño, extranjero; desfavorable;

□ *aes alienum*: zorrak // deudas.

aliquandō: adlg. noizean behin, noizbait, batzuetan // adv. alguna vez, a veces.

aliquantus, *a*, *um*: nahiko handi; nahiko // bastante grande; bastante.

ali-quis edo *-qui*, *-qua*, *-quid* edo *-quod*: adj. eta izord. zehaztug. norbait, zerbait, -en bat, baten bat, nor edo nor, zer edo zer, batzuk, zenbait, inor, ezer // adj. y pron. indef. alguno, alguien, algún, algo.

aliquot dekl. ez.: batzuk, zenbait // algunos.

aliter: adlg. bestela // adv. de otro modo;

□ *aliter ac*, *atque*, *et* edo *quam*: ... ez bezala // de otro modo que.

ālitis, gen. > *ales*.

alius, *a, ud*: beste, desberdin, bestelako // otro, distinto;

□ *alius atque, ac, praeter, quam, et*: -z bestelako, ez bezalako // otro que, distinto de;

□ *alius... alius*: bat... beste bat // uno... otro;

□ *alii alia dicunt*: batzuek esaten dute gauza bat, beste batzuek beste bat // unos dicen una cosa, otros otra.

allātus, *a, um*, pp. > *affero*.

al-levo 1: jaso du; arindu du, leundu du // levantar; aliviar, consolar, aligerar, mitigar.

al-licio, *lexi, lectum* 3 (*ad, lacio*): erakarri du, limurtu du, bereganatu du, neureganatu dut (eta antzekoak) // atraer, seducir, ganarse.

al-lido, *līsi, līsūm* 3 (*ad, laedo*): -en aurka jo du, -en aurka txikitu du; (pas.) kalte handia jaso du // chocar contra, estrellar contra; (pas.) sufrir un gran daño.

al-loquor, *locūtus sum* 3: -i hitz egin dio // hablar a, dirigir la palabra a.

al-lūdo, *lūsi, lūsum* 3: (-ekin) txantxetan aritu da, (-ekin) jolastu da; zeharka aipatu du // bromear (con), juguetear (con); aludir.

al-luo, *lui*, - 3: bainatu du, busti du // bañar.

alo, *alui, altum* edo *alītum* 3: elikatu du, hazi du // alimentar, criar.

alsi, perf. > *algeo*.

altē: goian, gora, goitik; sakonki; urrundik // en alto, a lo alto, de lo alto; profundamente; de lejos.

alter, *era, erum*: (bietako) bata, bestea; bigarrena // (de dos) el uno, el otro; el segundo;

□ *alter...alter*: bata... bestea // el uno... el otro;

□ *alter alterius indicium reprehendit*: bata bestearen epaia gaitzesten du // el uno censura el juicio del otro.

altercor 1: ika-mika ibili dira, eztabai-datu dute // reñir, discutir.

altitūdo, *inis* f: garaiera, altuera; sakontasun; sakonera // altura, altitud; profundidad.

altus, *a, um*, pp. > *alo*.

altus, *a, um*: garai, altu; sakon // alto; profundo.

alui, perf. > *alo*.

alveus, *i* m: barrunbe, sabel; azpil, aska; ontzi-krosko, txalupa; ibai-hondo, uberka; bainuontzi; erlauntz // cavidad; cubeta, artesa; casco de un barco, barquilla; lecho de un río; bañera; colmena.

alvus, *i* m: sabel, erraiak; erlauntz; ontzi-krosko // vientre, entrañas; colmena; casco de un barco.

amābilis, *e*: maitagarri, atsegin // amable, agradabe.

amans, *ntis*, p. pres. > *amo* maitatzaile, -en zale; maitale; txeratsu // que ama, amante; afectuoso.

amanter: maiteki, txeraz // con amor, afectuosamente.

amāritūdo, *inis* f: mingostasun, samintasun, mikaztasun // amargor, amargura.

amāror, *ōris* m > *amaritudo*.

amārus, *a, um*: mingots, mikatz // amargo.

amb-āges, *um* f pl.: itzulinguruak, ingurumariak // rodeos, circunlocuciones, ambages.

ambio, *ii* edo *īvi*, *ītum* 4 (*amb*, *eo*): -en inguruan ibili da; inguratu du; -en atzetik ibili da (zerbaiten eske), gorte egin dio, lausengatu du (onuren bat lortzeko) // andar alredecor; rodear; sollicitar, cortejar, asediar con peticiones.

ambitiōsus, *a*, *um*: handinahi, goranahi; azpikari; ohore-gose, ospesgose, karguen egarri // ambicioso; intrigante; ávido de honores, de cargos, de popularidad.

ambītus, *a*, *um*, pp. > *ambio*.

ambitus, *ūs* m: higidura biribil, inguru, inguraketa, itzulinguru; boto-eroskeria // movimiento circular, contorno, rodeo; cohecho electoral.

ambō, *ae*, *ō*: biak, biak batera // ambos, los dos juntos.

ambulo 1: paseatu da // pasear.

āmens, *ntis*: ero, zoro, burugabe // loco, insensato.

āmentia, *ae* f: erokeria, zorakeria // locura.

amīcē: adiskidetasunez // amistosamente.

amicio, *icui* edo *ixi*, *ictum* 3 (*amb*, *iacio*): bildu du, estali du, jantzi du // envolver, cubrir, vestir;

□ *amicitur* (pas.): -z jantzen da // se viste de.

amīcitia, *ae* f: adiskidetasun // amistad.

amictus, *a*, *um*, pp. > *amicio*.

amictus, *ūs* m: gainjantzi, kapa // manto.

amīcus, *a*, *um*: adiskide, lagun // amigo.

ā-mitto, *mīsi*, *misum* 3: urrun bidali du, igorri du; utzi du, galdu du; itzurtzen utzi du // enviar lejos, despedir; abandonar, perder; dejar escapar.

amixi, pp. > *amicio*.

amnis, *is* m: ibai // río.

amo 1: maite izan du, maitatu du; gogoko izan du // amar; gustar.

amoenus, *a*, *um*: atsegin, atsegingarri // ameno, delicioso, agradable.

amor, *ōris* m: maitasun, amodio // amor.

ā-moveo, *mōvi*, *mōtum* 2: urrundu du, baztertu du; erbesteratu du; kargutik kendu du; lapurtu du // alejar, apartar; desterrar; destituir; robar.

am-plector, *plexus sum* 3: inguratu du; besarkatu du; (barnean) hartu du, onartu du; -ra eman da, -ra zaletu da; balakatu du // rodear; abrazar; abarcar, acoger, aceptar; entregarse a, aficionarse a; halagar.

amplexus, *a*, *um*, pp. > *amplector*.

amplexus, *ūs* m: besarkada // abrazo.

amplius (konp. > *amplē*): gehiago, baino gehiago; gainera // más, más que, más de; además.

amplus, *a*, *um*: zabal, handi, nasai; ospetsu, hotsandiko, bikain, garrantzitsu // amplio, espacioso; magnífico, noble, importante.

am-puto 1: ebaki du; kimatu du; moztu du // amputar; podar; talar.

an: partikula galdetzeko edo zalantza adierazteko, galdera zuzen edo zeharkakoetan, bakun edo bikoitzetan; galdera zuzen bakuna, batzuetan erretorika: ote?; galdera bikoitz zuzen edo zeharkakoa: ala?; zehar-galdera bakuna: ea, ea ez // partícula para preguntar o expresar duda en interr. directas o indirectas, simples o dobles; interr. directa simple, a veces retórica: ¿acaso?; interr. doble directa o

indirecta: ¿o?; interr. indirecta simple: si, si no;

□ *an tu haec non credis?*: zuk ez **ote** dituzu hauek sinetsi? // **acaso** tú no lo crees?;

□ *cuius pecus? an Melibei?*: norena da taldea? Melibeorena **ote**? // ¿de quién es el rebaño? ¿**acaso** es el de Melibeo?;

□ *visne hoc an illud?*: nahi duzu hau **ala** hura? // ¿quieres esto **o** aquello?;

□ *nescio utrum loqui an silere debeam*: ez dakit hitz egin **ala** isildu behar dudán // no sé si debo hablar **o** callar;

□ *haud scio an erres*: ez dakit **ez ote** zauden oker // no sé **si no** te equivocás.

an-ceps, *capitis* (*amb, caput*): buru biko; bi ahoko; bitariko, esanahi biko // de dos cabezas; de dos filos; de dos clases; de doble sentido, ambiguo.

ancilla, *ae* f: neskame, (etxeko) mirabe // criada, esclava (doméstica).

ancora, *ae* f: aingura // ancla.

ango, *anxi*, - 3: larritu du, estutu du, heratsatu du // angustiar; estrechar, apretar.

anguis, *is* m eta f: suge // serpiente, culebra.

angulus, *i* m: angelu; zoko, bazter; kantoi, ertz // ángulo; esquina, rincón, lugar apartado.

angustē: estu, hertsiki; urri // estrechamente, de manera restringida; escasamente.

angustiae, *arum* f pl.: estutasunak, estualdiak; haitzarte, mendi-zintzur // estrecheces, dificultades; desfiladero.

angustus, *a, um*: estu, mehar // angosto, estrecho.

anima, *ae* f: arima; hats, arnasa // alma; aire, aliento.

animadverto, *rti, rsum* 3 (*animus adverto*): kasu egin dio; -z ohartu da; gaitzetsi du; zigortu du // prestar atención; darse cuenta; reconocer; reprender, castigar.

animal, *ālis* n: bizidun, animalia // ser animado; animal.

animātus, *a, um*, pp. > *animo* bizidun; prest, prestatu(a) // animado, dispuesto.

animo 1: bizia eman dio, piztu du; suspertu du; arnasa eman dio // animar, dar vida.

animōsus, *a, um*: adoretzu, kementsu; gartsu; oldartsu // animoso, valeroso; apasionado; impetuoso.

animus, *i* m: gogo; adore // ánimo.

an-nītor, *nīsus* edo *nīxus sum* 3: -n bermatu da; ahalegindu da // apoyarse en; esforzarse en.

an-nuo, *nui, nūtum* 3: buruaz baietz esan du // asentir con la cabeza.

annus, *i* m: urte; urtebete // año.

ante: prep. ak. -en aurrean, -en aurretik; baino lehen; adlg. aurrean, aurretik; lehenago // prep. de ac. delante de, antes de; adv. delante, antes.

anteā: adlg. lehenago // adv. antes.

ante-cēdo, *cessi, cessum* 3: aurrean joan da; -en aurretik joan da; aurrea hartu dio; gailendu da // ir delante; preceder; aventajar; sobresalir.

ante-eo, *ii, itum* 4: aurretik joan da, aurreratu da // ir delante, preceder, aventajar.

ante-fero, *tuli, lātum* 3: aurrean eramán du; lehenetsi du // llevar delante; anteponer, preferir.

anteii eta **anteitus**, *a, um*, perf. eta pp. > *anteo*.

antelātus, *a, um*, pp. > antefero.

antenna, *ae f*: antena, belaren haga // antena.

ante-pōno, *posui, positum* 3: aurrean jarri du; hobetsi du, lehenetsi du; nahiago izan du // anteponer, poner delante; preferir.

ante-quam edo **ante quam**: junt. baino lehen // conj. antes de, antes que.

antetuli, perf. > *antefero*.

antipico 1: aurreratu du; aurrea hartu du, aurreratu da // anticipar; adelantarse.

antiquitās, *ātis f*: antzinate, antzinalde; antzinatason // antigüedad.

antiquitus: adlg. antzina, antzinatik // adv. antiguamente, desde antiguo.

antiquus, *a, um*: antzinako // antiguo.

antrum, *i n*: haitzulo, harpe; barrunbe // antro, gruta; cavidad.

ānulus, *i m*: eratzun // anillo.

anus, *ūs f*: atso // vieja.

anxi, perf. > *ango*.

anxious, *a, um*: urduri, kezkatu(a), larri, estu // ansioso, inquieto; angustioso.

aper, *apri m*: basurde // jabalí.

aperio, *erui, ertum* 4: ireki du; agerian utzi du // abrir; dejar al descubierto.

apis, *is f*: erle // abeja.

Apollo, *inis m*: Apolo, eguzkiaren, arteen, medikuntzaren eta igartzearen jainkoa // Apolo, dios del sol, las artes, la medicina y la adivinación.

apparātus, *ūs m*: prestamen(ak), pres-talan(ak); tresneria, gailu(ak), gai(ak); hotsandi, arrandia // preparativos; aparato; magnificencia.

ap-pāreo, *ui, itum* 2: agertu da // aparecer, mostrarse;

□ (inperfs.) *apparet*: bistan da, nabari da // es evidente.

ap-paro 1: prestatu du, antolatu du, moldatu du // preparar, disponer.

appāruī, perf. > *appareo*.

ap-pello 1: -i hitz egin dio, -i hots egin dio; deitu dio-du; laguntza eskatu dio; epailearen aurrera deitu du // dirigir la palabra, interpelar; llamar, invocar, apelar a; citar a.

ap-pello, *puli, pulsum* 3: -ra bultzatu du, -ra zuzendu du; (ontziz) heldu da // empujar hacia; dirigir hacia; arribar.

ap-peto, *petīvi* edo *ii, petītum* 3: hartzen saiatu da; lortu nahi izan du, irrikatu du; eraso dio; hurbildu da // intentar coger; buscar, desear; atacar; acercarse.

ap-plico, *āvi* edo *ui, ātum* 1: -i ezarri dio, -n bermatu du, hurbildu du, alboratu du; -ra zuzendu du; (ontziz) -ra heldu da; (bihurk.) -ra eman da; -n bermatu da // aplicar, apoyar, acercar, arrimar; dirigir hacia; abordar, arribar; (refl.) dedicarse a; apoyarse en.

ap-pōno, *posui, positum* 3: -en ondoan jarri du, -en gainean ezarri du; zerbitzatu du, mahairatu du; erantsi dio // poner junto a, aplicar; servir; añadir.

ap-porto 1: eraman du, ekarri du, garraiatu du // llevar, traer, transportar.

appositus, *a, um*, pp. > *appono*.

apposui, perf. > *appono*.

ap-prehendo, *endi, ensum* 3: atzeman du, heldu dio, -z jabetu da; ulertu du // coger, apoderarse de; comprender.

ap-primo, *pressi, pressum* 3: estutu du // estrechar, apretar.

ap-probātio, *ōnis f*: onartze, onespen // aprobación.

ap-probo 1: onartu du, onetsi du // aprobar.

ap-propinquo 1: hurbildu da // acercarse.

appuli, perf. > *appello, puli, pulsum*.

appulsus, *a, um*, pp. > *appello, puli, pulsum*.

apri, gen. > *aper*.

aprilis, *is m*: apiril // abril.

aprilis, *e*: apirileko, apirilaren // de abril.

apto 1: moldatu du, egokitu du; prestatu du, atondu du // adaptar; preparar.

aptus, *a, um*: (-i) lotu(a), -i atxiki(a); -tik eseki(a); egoki, egokitu(a) // ligado, atado, trabado; dependiente de; apto, apropiado, ajustado.

apud: prep. ak. -en ondoan, -en aurrean; (norbait-)en etxean; (idazle bat-)en lanetan; (talde bat-)en artean // prep. de ac. junto a, ante; en casa de (alguien); en (un escritor); entre los (un grupo).

agua, *ae f*: ur // agua.

aquila, *ae f*: arrano (hegazti), (lejioen ezaugarri) // águila (ave), (insignia de las legiones).

aquor 1: ur bila joan da, ura hartu du // coger agua.

āra, *ae f*: aldare // altar, ara.

arātor, *ōris m*: nekazari, laborari // labrador.

arātrum, *i n*: golde // arado.

arbiter, *tri m*: epaile, lekuko // árbitro, testigo.

arbitrium, *ii n*: epai, epaiketa, erabaki; aukeramen; eskubide; tarifa // fallo, juicio, decisión; arbitrio, albedrío; derecho; tarifa;

□ *ad arbitrium Marci, arbitriō tuō*: Markoren nahierara, zure nahierara // a voluntad de Marco, a tu gusto.

arbitror 1: uste izan du, pentsatu du, iritzi dio // creer, pensar, opinar.

arbor [eta -os], *oris f*: zuhaitz, arbola // árbol.

arburstum, *i n*: zuhaizti, arboladi // arboleda.

arca, *ae f*: kutxa // arca.

arcānus, *a, um*: isileko, ezkutuko // oculto, secreto.

arcānum, *i n*: sekretu, misterio // arcano, misterio.

arceo, *ui*, - 2: eduki du, eutsi dio, atxiki du; geldiarazi du, -tik urrun mantendu du // contener, retener; mantener a raya, apartar, rechazar.

arcesso, *īvi, ītum* 3: deitu dio-du, etorrarazi du, epaiketa batera deitu du; -tik ekarri du; (-tik) lortu du // llamar, hacer venir; citar en justicia; procurarse, proporcionar.

architectus, *i m*: arkitekto; asmatzaile, egile // arquitecto; inventor, creador.

arcis, gen. > *arx*.

arctus, *a, um* > *artus, a, um*.

arcui, perf. > *arceo*.

arcus, *ūs m*: arku, uztai // arco.

ardens, *ntis*, p.pres. > *ardeo* sutsu, kartsu, bizi // ardiente, apasionado.

ardeo, *arsi, arsum* 2: erre da, sutan egon // arder.

ardor, *ōris m*: galda, lama, su, gar; distira; pasio, irrika // ardor, fuego; brillo; pasión.

arduus, *a, um*: garai, goititu; neketsu, zail; malkartsu // elevado; arduo, difícil; escarpado.

arēna > *harena*.

āreo, *ui, - 2*: lehor egon; egarri izan da, egarriak egon // estar seco; estar sediento.

argenteus, *a, um*: zilarrezko; zilarreztatuta; zilar-koloreko // de plata, plateado.

argentum, *i n*: zilar // plata.

argui, perf. > *arguo*.

argūmentum, *i n*: argudio; argumentu, gertakizun // argumento.

arguo, *ui, ūtum 3*: frogatu du, erakutsi du; salatu du; ezeztu du, gezurtatu du // probar, demostrar; acusar; contradecir, refutar.

āridus, *a, um*: idor, lehor; ihar; murrizt; zikoitz, zeken // árido, seco; enjuto; parco; mezquino, tacaño.

āridum, *i n*: lehor // tierra firme.

ariēs, *ētis m*: ahari; ariete // carnero; ariete.

arma, *ōrum n pl*: armak // armas;

□ *arma et tela*: babes- eta eraso-armak // armas defensivas y ofensivas.

armentum, *i n*: (azienda larrien) talde, behi-talde, zaldi-talde // rebaño (de ganado mayor), manada.

armilla, *ae f*: besoko // brazaletes.

armo 1: armatu du, armaz hornitu du; prestatu du, hornitu du, tresnatu du // armar; equipar, aparejar.

armus, *i m*: sorbalda, soingain; besaburu, besagain // parte superior del brazo junto al hombro; hombro; espaldilla.

aro 1: goldatu du // arar.

ar-rigo, *rexī, rectum 3 (ad, rego)*: zuzendu du, tentetu du; suspertu du, adoretu du // enderezar, erizar; animar, estimular.

ar-ripio, *ripui, reptum 3 (ad, rapio)*: (indarrez, ezustean) harrapatu du, atzeman du, atzitu du // arrebatat, agarrar, arrestar, coger por sorpresa.

ar-rogo 1: (*sibi*) beretu du, beretzat hartu du; (*mihi*) niretu dut, (*tibi*) zeuretu duzu...; seme-alabatza hartu du; esleitu dio // arrogarse, atribuirse, apropiarse; adoptar; atribuir, asociar.

ars, *artis f*: arte, antze, trebetasun; lanbide, teknika; jokaera; bide // arte; oficio, técnica; habilidad; conducta; manera.

arsi, perf. > *ardeo*.

arti-fex, *ficis m*: artista, egile, maisu // artífice, artista, autor, maestro, creador.

artis, gen. > *ars*.

artus, *a, um*: estu, mehar; murriztu(a), mugitu(a) // estrecho, compacto, ceñido; restringido, reducido; apurado.

artum, *i n*: mehargune; estutasun // lugar estrecho; estrechez, apuro.

artūs, *uum* [dat. eta ab. *artubus*] m pl.: giltzadurak, artikulazioak; soin-atalak, gorputz-adarrak, lohadarak // articulaciones; miembros, extremidades.

ārui, perf. > *areo*.

arvum, *i n*: soro, alor, ereintza // campo, sembrado.

arx, *arcis f*: gotorleku, zitadela // ciudadela, alcázar.

ās, *assis m*: as (kobrezko dirua, balio gutxikoa); sos, ardit; unitate; pisu-unitate, libera; neurri-unitate, oin // as (moneda de cobre de poco valor);

céntimo, perra gorda; unidad; unidad de peso, libra; unidad de medida, pie;

□ *unius assis aestimare*: gutxietsi du, ardit baten kasurik ez egin // estimar en poco;

□ *ad assem*: azken sosa arte, azken soseraino // hasta el último céntimo;

□ *ex asse*: guztira // en total;

□ *heres ex asse*: oinordeko orokor // heredero universal;

□ *assem habes, assem vales*: zenbat daukan, hainbat balio // tanto tienes, tanto vales.

a-scendo, *scendi, scensum* 3 (*ad, scando*): igo da // subir, ascender.

ascensus, *a, um*, pp. > *ascendo*.

ascensus, *ūs* m: igoera, maila // subida; grado.

a-scisco [*ad-scisco*], *scīvi, scītum* 3: bereganatu du (neureganatu dut...), beretu du (niretu dut...); onartu du, kide bihurtu du; jaso du, hartu du, (*sibi*) beretzat hartu du, (*mihi*) niretzat hartu dut... // atraerse, adoptar, acoger, asociar; admitir, recibir; (*sibi*) atribuirse, arrogarse;

□ *Britanos sibi socios asciscunt*: britaniarrak aliatu gisa hartzen dituzte // toman como aliados a los britanos;

□ *Marcum civem asciscunt*: Markori hiritargoa ematen diote // conceden la ciudadanía a Marco.

a-scribo, *scripsi, scriptum* 3: (idazki batean) erantsi du; izena eman du, (zerrenda batean) sartu du, -n sartu du; egotzi dio, esleitu dio // añadir (a lo escrito); inscribir, alistar, incluir; atribuir, asignar.

asina, *ae* f: asteme // asna.

asinus, *i* m: asto; astakirten // asno, burro.

asparagus, *i* m: zainzuri // espárrago.

aspectus, *a, um*, pp. > *aspicio*.

aspectus, *ūs* m: ikusmen; ikuspegi; itxura // mirada; vista; aspecto.

asper, *era, erum*: latz, zakar // áspero, escabroso.

a-spergo, *spersi, spersum* 3: ihinzatu du, zipriztindu du, busti du; sakabanatu du, barreiatu du; ganean bota dio // rociar, salpicar, espolvorear; esparcir.

asperitās, *ātis* f: laztasun, gogortasun, zorroztasun; estutasun // aspereza, dureza, severidad; apuro.

aspersi eta **aspersus**, *a, um*, perf. eta pp. > *aspergo*.

a-spicio [*ad-spicio*], *aspexi, aspectum* 3 (*ad, specio*): -ra begiratu du, ikusi du, aztertu du // mirar hacia, ver, considerar.

a-spīro 1: putz egin du, haize eman du; lagundu dio; lortu nahi izan du, iritsi nahi izan du, helburu izan du; goiargitu du, inspiratu du; hasperendu du // soplar; favorecer; aspirar a; inspirar; aspirar.

as-sector 1: jarraitu dio, denbora guztian lagundu dio // seguir, acompañar continuamente.

assecūtus, *a, um*, pp. > *assequor*.

assēdi, perf. > *assideo*.

as-sentior, *sensus sum* 4: baietz esan dio // asentir.

as-sequor, *secūtus sum* 3: -ra heldu da, -ra iritsi da // alcanzar.

dis-traho, *traxi, tractum* 3: zatitu du, bereizi du, banatu du, desegin du; norabide desberdinetatik tiratu du; xeheka saldu du // dividir, separar, apartar, desunir, deshacer; tirar en varias direcciones; vender al por menor.

dis-tribuo, *bui, būtum* 3: banatu du // distribuir.

distuli, perf. > *differo*.

dītior, *ius* (konp. > *dives*): aberatsago // más rico.

dītissimus, *a, um* (superl. > *dives*): aberatsen // el más rico.

diū: adlg. luzaz, luzaro, luzaroan; egunez // adv. largo tiempo; de día.

diurnus, *a, um*: eguneko; eguneroko // diurno, de día, diario.

diūtissimē (superl. > *diu*): adlg. luzaroen // adv. el mayor tiempo.

diūtius (konp. > *diu*): adlg. luzaroago, luzeago // adv. durante más tiempo, por más tiempo.

dīurnitās, *ātis* f: iraupen handi // larga duración.

dīurnus, *a, um*: iraunkor // duradero.

dī-vello, *velli* [edo *vulsi*], *vulsum* 3: erauzi du, urratu du; bortxaz bereizi ditu // arrancar, desgarrar; separar violentamente.

dīversus, *a, um*: norabide desberdinetako, hainbat aldera zuzenduta; urrutiko; aurkako; desberdin, askotariko // vuelto en distintas direcciones; alejado, contrario; diferente, diverso.

dīves, *itis*: aberats // rico.

dī-vido, *vīsi*, *vīsum* 3: zatitu du, banatu du, bereizi du // dividir, distribuir, separar; distinguir.

dīvīnātio, *ōnis* f: igartze, igarpen // adivinación.

dīvīnitus: adlg. jainkoen borondatez // adv. por voluntad divina.

dīvīnus, *a, um*: jainkotiar, jainkozko; zoragarri // divino, de los dioses; maravilloso.

dīvīnus, *i* m: igarle // adivino.

dīvīsi, perf. > *divido*.

dīvīsus, *a, um*, pp. > *divido*.

dīvīsus, *ūs* m: banatze // reparto;

□ *facilis divisiui*: banatzeko erraz // fácil de repartir.

dīvītia, *iārum* f pl.: aberastasunak, ondasunak // riquezas.

dīvītis, gen. > *dives*.

dīvulsi eta **dīvulsus**, *a, um*, perf. eta pp. > *divello*.

dīvus, *a, um*: jainkozko, jainkotiar // divino.

dixi, perf. > *dico*.

do, *dedi, datum* 1: eman du // dar.

doceo, *cui, ctum* 2: irakatsi du; -en berri eman du, jakinarazi du // enseñar; informar.

doctrīna, *ae* f: heziketa, kultura; irakaspen, jakintza // educación, cultura; doctrina, ciencia.

doctus, *a, um*, pp. > *doceo*
ikasí(a), jakintsu // docto, instruido.

docui, perf. > *doceo*.

documentum, *i* n: ikasbide, adibide, eredu, irakaspen // enseñanza, ejemplo, modelo, lección;

□ *esse documento*: ikasbide izan // servir de lección.

doleo, *dolui, - [dolitūrus]* 2: -n mina izan du, -ko mina izan du; minez egon; atsekabez egon; deitoratu du // doler, tener dolor; dolerse de, lamentar;

□ *caput dolet*: buruko mina dut // me duele la cabeza.

dolor, *ōris* m: min, atsekabe // dolor, pesar.

dolōsus, *a, um*: iruzurrezko, engainagarri, engainuzko // engañoso, fraudulento.

dolui, perf. > *doleo*.

dolus, *i* m: iruzur, engainu, amarru // engaño, fraude.

domesticus, *a, um*: etxeko, etxetiar, etxe-; norberaren; barne-, herriko // doméstico, de casa; personal, particular; interior, del país;

□ *res domesticae* f pl: ondare; hemengo gauzak, herriko gauzak // patrimonio; cosas del país;

□ *bellum domesticum* n: barne-gerra // guerra intestina, guerra civil.

domicilium, *ii* n: bizileku, etxe, egoitza // domicilio, morada.

domina, *ae* f: andere, etxeoandre; ugazabandre // dueña, señora.

dominor 1: -en jabe izan da, menderatu du, nagusi izan da, errege izan da // ser dueño, dominar, reinar sobre.

dominus, *i* m: jabe, jaun, etxeo jabe; nagusi, ugazaba // dueño, señor.

domo, *ui, itum* 1: hezi du, etxekotu du; menderatu du // domar, domesticar; someter.

domus, *ūs* edo **domus**, *i* f: etxe // casa.

dōnec junt. -en bitartean, -en artean, (aditza +) arte // conj. mientras, hasta que.

dōno 1: eman du, opari egin dio, -en emaitza egin dio // dar, regalar.

dōnum, *i* n: dohain, opari, emaitza // don, regalo.

dormio 4: lo egin du // dormir.

dormīto 1: erdi lotan egon // dormitar.

dorsum, *i* n: bizkarralde, bizkar, atzealde // dorso, espalda, lomo.

draco, *ōnis* m: herensuge, dragoi // dragón.

druidae, *ārum* edo **druides**, *um* m pl.: druidak, antzinako galiarren apaizak // druidas, sacerdotes de los antiguos galos.

dubiē: zalantzaz // dudosamente;

□ *non dubie, haud dubie*: zalantzarik gabe // sin duda.

dubitatio, *ōnis* f: zalantza // duda.

dubito 1: zalantza egin du // dudar.

dubius, *a, um*: zalantzazko; zalantzatsu // dudoso.

dubium, *ii* n: zalantza, duda-muda // duda, vacilación.

ducēni, *ae, a*: berrehuna; berrehunako // doscientos cada uno; de doscientos en doscientos.

ducentēsimus, *ae, a*: berrehungarren; berrehunen // ducentésimo.

ducenti, *ae, a*: berrehun // doscientos.

dūcis, gen. > *dux*.

dūco, *duxi, ductum* 3: eraman du, gidatu du, zuzendu du, -en buru izan da; hartu du; luzatu du; -tzat hartu du // conducir, guiar, llevar, dirigir; llevarse, tomar; estirar, prolongar; pasar (el tiempo, la vida); considerar;

□ *sortes ducere*: zotz egin // echar suertes.

ducto 1: eraman du, gidatu du // conducir, llevar.

ductus, *a, um*, pp. > *duco*.

dulcis, *e*: gozo, ezti, leun, atsegin // dulce, suave, agradable.

dum: junt. -en bitartean // conj. mientras.

duo, *ae, o*: bi // dos.

duo-decim dekl. ez.: hamabi // doce.

duo-decimus, *a, um*: hamabigarren; hamabiren // duodécimo.

duo-dēni, *ae, a*: hamabina; hamabinako // doce cada uno; de doce en doce.

duo-dē-trīgintā dekl. ez.: hogeita zortzi // veintiocho.

duo-dē-vīcēni, *ae, a*: hemezortzina; hemezortzinako // dieciocho cada uno; de dieciocho en dieciocho.

duo-dē-vīcēsīmus edo **-vīgēsīmus**, *a, um*: hemezortzigarren; hemezortziren // decimotavo.

duo-dē-vīginti dekl. ez.: hemezortzi // dieciocho.

duplex, *icis*: bikoitz, bikun; tolesdun // doble; falso.

duplus, *a, um*: bikoitz, bikun, bi halako // doble, dos veces mayor.

dūrē: gogor, zakarki, zorrotz // duramente, áspicamente, severamente.

dūro 1: gogortu du-da; eutsi dio; iraun du // endurecer; endurecerse; perseverar; perdurar.

dūrus, *a, um*: gogor, latz, zakar; zail // duro, áspero, insensible; penoso.

duum-vir, *i m*: duunbiro (bi laguneko batzordeko magistratua) // duunviro (magistrado de una comisión de dos personas).

dux, *dūcis m*: jeneral; gidari // general; guía.

duxi, perf. > *duco*.

E

ē > *ex*

ē-bibo, *bibi*, - 3: bukatu arte edan du, hustu du // beber hasta el fin, apurar.

ebur, *oris n*: boli, marfil // marfil.

ecce: adlg. hona hemen // adv. he aquí.

ec-quis, *ecquid*: izord. gald. norbait ote?, zerbait ote?; menturaz? // pron. interr. ¿por ventura alquien?, ¿acaso alquien?, ¿acaso algo?; ¿acaso?

edax, *ācis*: jatun, jale // comilón; que come o consume.

ēdi, perf. > *edo, edi, esum*.

ē-dico, *dixi, dictum* 3: aldarrikatu du, iragarri du; agindu du; izendatu du;

adierazi du // proclamar, anunciar; ordenar; designar; declarar.

ēdictus, *a, um*, pp. > *edico*.

ēdictum, *i n*: ediktu, legezko abisu, agindu // edicto, orden.

ēdidi, perf. > *e-do, didi, ditum*.

ē-disco, *didici*, - 3: buruz ikasi du, oso ongi ikasi du // aprender de memoria, aprender perfectamente.

ēditus, *a, um*, pp. > *e-do, didi, ditum* garai, jaso(a) // elevado.

ēdixi, perf. > *edico*.

edo [*ēs, est*], *ēdi, ēsum* 3 [inf. *esse*]: jan du // comer.

ē-do, *didi, ditum* 3: atera du, kanporatu du; sortu du; argitaratu du, agertu du, adierazi du, aurkeztu du // hacer salir; dar a luz; producir; publicar, exhibir, exponer, declarar públicamente.

ē-doceo, *docui, doctum* 2: sakonki irakatsi du; zehatz-mehatz irakatsi du // enseñar a fondo, con detalle.

ē-duco 1: hezi du, hazi du // educar, críar.

ē-dūco, *duxi, ductum* 3: atera du, kanpora eraman du; hazi du // sacar, hacer salir; criar.

effātus, *a, um*, pp. > *effor*.

effēci, perf. > *efficio*.

effectus, *a, um*, pp. > *efficio*.

ef-fero, *ex-tuli, ē-lātum* 3 (*ex, fero*): kanpora eraman du, atera du; (hildakoa) ehorztera eraman du; eman du; adierazi du, erakutsi du, zabaldu du; goratu du; (pas. edo bihurk.) berotu da, harrotu da // llevar fuera, sacar; llevar a enterrar (a un muerto); producir; manifestar, divulgar; elevar; (pas. y refl.) dejarse llevar, enorgullecerse.

efficax, *ācis*: eraginkor // eficaz.

ef-ficio, *fēci, fectum* 3 (*ex, facio*): burutu du; lortu du; sortu du; bihurtu du; bete du; ondorioztatu du // llevar a cabo; obtener; producir; convertir en; cumplir; deducir.

effigiēs, *ēi* f: irudi; eredu // imagen, efigie; modelo.

ef-flōresco, *flōruī*, - 3: loratu da // florecer.

ef-fluo, *fluxi, fluxum* 3: kanpora isuri da; itzuri da; desagertu da, desegin da // salir fluyendo; escaparse; desaparecer, desvanecerse.

ef-for, *fātus sum* 1: esan du, hitz egin du, adierazi du // decir, hablar, anunciar.

ef-frēnātus, *a, um*: bridagabe; neurri-gabe, zoro // desenfrenado, desbocado.

effūdi, perf. > *effundo*.

ef-fugio, *fūgi*, - 3: ihes egin du // huir, escaparse.

effugium, *ii* n: ihes, ihesbide // huida, escapatoria.

ef-fundo, *fūdi, fūsum* 3: isuri du, irauli du, bota du; barreiatu du; barra-barra eman du; askatu du, (barrena) hustu du; (pas. eta bihurk.) -i eman zaio, -ra eman da // derramar, verter; volcar, arrojar; derrochar; dispersar; producir en abundancia; soltar, desahogar; (pas. y refl.) abandonarse a, entregarse a.

effūsē: ugari, erruz, barra-barra; neurririk gabe; arrapaladan // abundantemente, con profusión; inmoderadamente; a la desbandada.

effūsus, *a, um*, pp. > *effundo* hedatu(a), askatu(a), neurri-gabe, oparo; barreiatu(a) // amplio, suelto; inmoderado, pródigo; desbandado.

egēnus, *a, um*: behartsu, behardun, -en beharrean dagoen // pobre, necesitado de.

egeo, *ui*, - 2: -en falta izan du, -en beharra izan du // carecer de, tener necesidad de.

egestās, *ātis* f: behartasun, txirotasun, gabezia // pobreza, escasez, falta de.

egi, perf. > *ago*.

ego [ak. eta ab. *mē*, gen. *mei*, dat. *mihī*]: ni, neu // yo.

ē-gredior, *gressus sum* 3 (*ex, gradior*): atera da; -tik aldendu da, urrundu da; gainditu du // salir; alejarse de; exceder.

ēgregiē: bikainki; guztiz // distinguidamente, excelentemente; especialmente.

ē-gregius, *a, um* (*ex, grex*): bikain, gailen // sobresaliente, egregio, distinguido.

ēgressus, *a, um*, pp. > *egredior*.

egui, perf. > *egeo*.

ēheū: ai! // ¡ay!

eī, dat. > *is, ea, id*.

ēia: ea! // ¡ea!

eīdem, dat. > *idem, eadem, idem*.

ē-[i]icio, *iēci, iectum* 3 (*ex, iacio*): kanpora bota du, egotzi du, kanporatu du, erbesterratu du; (bihurk.) oldarrean atera da; (ontzia) lehorreratu du; atzera bota du // echar fuera, expulsar, desterrar; (refl.) lanzarse fuera; varar (una nave); rechazar.

ēius, gen. > *is, ea, id*.

ēiusdem, gen. > *idem, eadem, idem*.

ēiusmodi: halako // de tal modo, tal.

ē-lābor, *lapsus sum* 3: kanpora irristatu du; itzuri da, ihes egin du, saihestu du // deslizarse fuera; escaparse, eludir; desvanecerse.

ēlātus, *a, um*, pp. > *effero*
jaso(a) // elevado.

ēlegantia, *ae f*: dotoretasun // elegancia.

elementa, *ōrum n pl.*: alfabeto; hasimasiak, hastapenak, oinarriak // alfabeto; rudimentos, principios.

elephantus, *i m eta f*: elefante; boli // elefante; marfil.

elephās, *ntis m* > *elephantus*.

ē-licio, *cui, citum 3 (ex, lacio)*: aterarazi du, atera du; kanpora deitu du, erakarri du // hacer salir, sacar; evocar, atraer.

ē-līdo, *līsi, līsum 3 (ex, laedo)*: egotzi du, atera du (kolpeka); jaurti du; txikitu du, birrindu du // expulsar, hacer salir (a golpes); arrojara; estrellar, aplastar.

ē-ligo, *lēgi, lectum 3 (ex, lego)*: hautatu du // elegir, escoger.

ēlīsi eta **ēlīsus**, *a, um*, perf. eta pp. > *elido*.

ēlocūtus, *a, um*, pp. > *eloquor*.

ēloquens, *ntis*: ele-eder // elocuente.

ēloquentia, *ae f*: etorri, hitz-jario, hitz egiteko erraztasun; ele-edertasun // elocuencia.

ē-loquor, *locūtus sum 3*: mintzatu da, adierazi du // hablar, expresarse; exponer.

ē-lūdo, *lūsi, lūsum 3*: saihestu du; iseka egin dio // eludir; burlarse de.

ē-mendo 1: zuzendu du, arteztu du, konpondu du // enmendar, corregir.

ēmi, perf. > *emo*.

ē-mineo, *ui, - 2*: gailendu da, nabarmendu da; irten da // sobresalir, resaltar.

ē-minus (*ex, manus*): adlg. urrunetik // adv. de lejos.

ē-mitto, *mīsi, missum 3*: atera du, askatu du, bota du, jaurti du; jaulki du // hacer salir, dejar salir, echar fuera, lanzar; proferir.

emo, *ēmi, emptum 3*: erosi du // comprar.

ēmolumentum, *i n*: etekin, irabazi(a) // ganancia.

ē-morior, *mortuus sum 3*: hil da, desagertu da // morir, extinguirse.

ē-moveo, *mōvi, mōtum 2*: urrundu du, lekuz aldatu du, kendu du, baztertu du; astindu du // apartar, remover, alejar; sacudir.

emptor, *ōris m*: erosle // comprador.

emptus, *a, um*, pp. > *emo*.

ēn: hona hemen // he aquí.

ē-narro 1: zehatz kontatu du; iruzkindu du // contar detalladamente; interpretar, comentar.

ē-neco, *necui, nectum 1*: hil du; leher eragin dio, nekarazi du // matar; agotar, atormentar.

ēnectus, *a, um*, pp. > *eneco*

leher egin(a) // agotado, muerto de.

ēnim: adlg. eta junt. izan ere, baiki, bada // adv. y conj. en efecto, pues;

□ *at enim*: baina, esango duzu, // pero dirás.

ensis, *is m*: ezpata // espada.

ē-numero 1: banan-banan zenbatu ditu, banan-banan kontatu ditu, zerrendatu ditu // enumerar.

ē-nuntio 1: jakinarazi du, adierazi du, zabaldu du // revelar, descubrir, divulgar.

eo, *ii [edo tvi], itum 4*: joan da // ir.

ēō (*ab. n > is*): adlg. han; hara; hainbesteraino; hori dela eta // adv. allí, en aquel punto; hasta tal punto; por eso.

eōdem (ab. n > *idem*): adlg. bertan, bertara // adv. allí mismo, al mismo lugar.

epigramma, *atis* n: idazkun (harri, txanpon... batean idatzia), epitafio (hilarrian idatzia); epigrama (satira-olerki laburra), ziri-olerki // inscripción, epitafio; epigrama.

epistula, *ae* f: eskutitz, gutun // carta.

epulum, *i* n: oturuntza (zeremonia eta ospakizunetan ematen zena), otordu sakratu(a) // festín (dado en ceremonias y solemnidades), banquete sagrado.

eques, *itis* m eta f: zaldizko, zaldun // jinete, caballero.

equester, *tris, tre*: (zaldi edo zaldunari dagokion) zaldi-, zaldizko; zaldun- // ecuestre (perteneciente al caballo o al caballero).

e-quidem: adlg. egiaz; baiki; izan ere // adv. ciertamente, en efecto.

equitātus, *ūs* m: zalditeria; zaldun-ordena // caballería; orden ecuestre.

equitis, gen. > *eques*.

equito 1: zaldiz ibili da // cabalgar, montar a caballo.

equus, *i* m: zaldi // caballo.

ērectus, *a, um*, pp. > *erigo*
zutitu(a), goratu(a), jaso(a); harro, jaiki(a); erne // erguido, elevado; altanero; despierto.

ēreptus, *a, um*, pp. > *eripio*.

ērexi, perf. > *erigo*.

ergā: prep. ak. (-en)ganako, (-en)alderako, -i buruz, -i dagokion // prep. de ac. para con, hacia, con respecto a.

ergō: junt. beraz, hortaz, ondorioz // conj. así pues, por lo tanto.

ē-rigo, *rexi, rectum* 3 (*ex, rego*): eraiki du, goratu du, jaso du; gora bidali du; adoretu du // erigir, levantar; hacer subir; animar.

ē-ripio, *ripui, reptum* 3 (*ex, rapio*): (indarrez) harrapatu du, kendu du, atera du, erauzi du // arrebatat, arrancar; sacar (con cierta violencia);

□ *se eripuit ne*: ihes egin zion, -tik itzuri zen // se escapó de, se libró de.

ē-rogo 1: (herri-altxorretik dirua) atera du; (diru publikoaz) ordaindu du; gastatu du // sacar (dinero del tesoro público), pagar (con dinero público); gastar.

erro 1: alderai ibili da, nora gabe ibili da; huts egin du, oker egon // andar errante, vagar; equivocarse.

error, *ōris* m: alderai, nora gabe ibiltze; desbideratze, itzulinguru; hutsegite, oker, akats; ezbai // acción de vagar, de andar errante; extravío, rodeo; error, equivocación, falta; incertidumbre.

ē-rudio 4: irakatsi du, eskolatu du // enseñar, instruir.

ēruditus, *a, um*, pp. > *erudio*
ikasi(a), jakitun, eskolatu(a) // erudito, instruido.

ē-rumpo, *rūpi, ruptum* 3: oldarrean, ziztu bizian atera da, lehertu da; hustu du, bota du; indarrez atera du // precipitarse fuera, estallar; desahogar; hacer salir violentamente.

ē-ruo, *rui, rutum* 3: lurpetik atera du; erauzi du, deserrotu du, atera du; argitara atera du // desenterrar; extraer, arrancar; sacar a la luz.

ērūpi, perf. > *erumpo*.

ēruptio, *ōnis* f: bat-bateko irteera bortitz; erupzio; eztanda // salida impetuosa; erupción, explosión.

ēruptus, *a, um*, pp. > *erumpo*.

ērutus, *a, um*, pp. > *eruo*.

esca, *ae* f: janari, jaki; amu // comida; cebo.

esse, inf. > *sum*.

essedum, *i* n: gerra-gurdi, bi gurpileko gurdi // carro de combate, carro de dos ruedas.

ēsus, *a, um*, pp. > *edo, edi, esum*.

ēsurio 4: gose izan da, goseak egon // tener hambre, estar hambriento.

et: junt. eta; adlg. (baita...) ere, ere bai, halaber // conj. y; adv. también, asimismo;

□ *et...et*: bai... bai, batetik... bestetik // tanto... como, ya... ya, por un lado... por otro.

et-enim: junt. eta izan ere // conj. y en efecto..

etiam: ere, baita ere, are, gainera; oraindik; berriro; bai // además, también, aun, incluso; aún, todavía; de nuevo; sí;

non modum... sed etiam: ez... bakarrik, baizik eta // no sólo... sino también.

etiam-si: junt. nahiz eta, arren, ba-... ere // conj. aunque, incluso si.

et-si: junt. ba-... ere; nahiz eta, arren // conj. aunque, si bien.

euge: ongi! aupa! // ¡bien!, ¡bravo!

ē-vado, *vāsi, vāsum* 3: atera da; -ra igo da; -tik ihes egin du, -tik libratu da; -n bukatu da, bihurtu da; zeharkatu du, igaro du; saihestu du // salir; subir; escaparse, librarse de; parar en, llegar a ser; atravesar, franquear; evitar.

ē-vānesco, *vānui*, - 3: desegin da, desagertu da // desvanecerse, disiparse.

ēvāsi eta **ēvāsus**, *a, um*, perf. eta pp. > *evado*.

ēvectus, *a, um*, pp. > *eveho*

gaindituta, eramana(a) // que ha sobrepasado, llevado;

□ *evectus os amnis*: ibai-ahoa gaindituta // habiendo superado la desembocadura del río.

ē-veho, *vexi, vectum* 3: eramana du, garraiatu du; atera du; goratu du, jaso du; (pas.) igo da, eramana izan da // llevar, transportar; exportar, sacar; elevar, levantar; (pas.) subir, dejarse llevar.

ē-vello, *velli, vulsum* 3: erauzi du // arrancar.

ē-venio, *vēni, ventum* 3: irten da, atera da; gertatu da, ondorioa da // salir; suceder, resultar.

ēventus, *a, um*, pp. > *evenio*.

ēventum, *i* n: ondorio, emaitza; gertaera // resultado; suceso.

ē-ventus, *ūs* m: ondorio, amaiera // resultado, desenlace.

ē-vertō, *verti, versum* 3: irauli du, azpikoz gora jarri du; eraitsi du, erorarazi du; -z gabetu du, -z desjabetu du // volver del revés, volcar; derribar; expulsar, expropiar.

ēvexi, perf. > *eveho*.

ē-videns, *entis*: nabari, ageriko, bistako // evidente, visible.

ē-voco 1: deitu dio-du, etorriarazi du; erakarri du; (soldadu zaharrei) soldaduskara berriro deitu die; eragin du // llamar, hacer venir, convocar; atraer; llamar a las armas (a los veteranos); provocar.

ē-volo 1: hegan ihes egin du; ziztu bizian alde egin du // salir volando, escaparse.

ē-volvo, *volvi*, *volūtum* 3: itzulikatu du, biratu du; (pas. edo bihurk.) itzulikatu da, biratu da; (bilduta, kiribilduta, birilkatua dagoena) zabaldu du, hedatu du; garatu du, azaldu du // hacer rodar; (pas. edo refl.) rodar; desenrollar, desenvolver, desenroscar; desplegar, desarrollar, explicar.

ēvulsus, *a*, *um*, pp. > *evello*.

ex: prep. ab. (abiapuntua adierazten du) -tik, -(en)gandik; -z geroztik; -(en)gatik; -zko; -en arabera // prep. de ab. (indica punto de partida, origen) de, desde; después de; a causa de, por; (hecho) de; según.

exactus, *a*, *um*, pp. > *exigo*
zehatz, doi // preciso, exacto.

exanimis, *e*: bizigabe, arnasmgabe; izuak hartu(a) // exánime, inanimado; muerto de miedo.

exanimus, *a*, *um* > *exanimis*.

ex-ardesco, *arsi*, *arsum* 3: erre da, sutan egon; piztu da; sumindu da // arder, encenderse; irritarse.

ex-aro 1: goldatu du,ildoak egin ditu, marratu du, marrak egin ditu // arar, surcar, trazar.

ex-audio 4: (garbi) entzun du, aditu du; kasu egin dio // oír (con claridad), escuchar.

ex-cēdo, *cessi*, *cessum* 3: joan da, alde egin du, atera da; utzi du; gainditu du; -n bukatu da // irse, salir, abandonar; superar; parar en.

ex-cello, -, - 3: gailendu da, nabarmendu da; gainditu du, abantaila eraman du // sobresalir; aventajar.

excelsus, *a*, *um*: garai, goren, bikain // excelso, elevado.

excēpi, perf. > *excipio*.

exceptus, *a*, *um*, pp. > *excipio*.

excessi, perf. > *excedo*.

excessus, *a*, *um*, pp. > *excedo*.

excessus, *ūs* m: irteera, irtete // salida.

ex-cido, *cidi*, - 3 (*ex*, *cado*): erori da; itzuri zaio; desagertu da, galdu da; burutik joan zaio, ahaztu zaio; (zozketan) atera da; -n bukatu da; (-ik) gabe geratu da // caer; escaparse; desaparecer, perderse; irse de la memoria; caer en suerte; acabar en; quedarse sin.

ex-cīdo, *cīdi*, *cīsum* 3 (*ex*, *caedo*): ebaki du, moztu du; ezabatu du; ezereztu du; zulatu du // cortar, sacar cortando; suprimir; destruir; cavar.

ex-cieo, *cīvi* [*cīi*], *cītum* 2 > *excio*.

ex-cīo, *cīvi* [*cīi*], *cītum* 4: aterarazi du, kanpora deitu du, deitu du; piztu du, sortu du; akuilatu du, asaldatu du, iratzarri du // hacer salir, llamar fuera, convocar; provocar, excitar, despertar.

ex-cipio, *cēpi*, *ceptum* 3 (*ex*, *capio*): -tik hartu du, -tik atera du; (pas.) -i itzuri zaio; salbuetsi du; jaso du, hartu du; jasan du; berriz hartu du, -en ondoren etorri da // tomar de, sacar de; (pas.) escaparse a; exceptuar, recibir, recoger, acoger; soportar; retomar, suceder a.

ex-cīto 1: aterarazi du, mugiarazi du, jaikiarazi du; iratzarri du, asaldatu du, akuilatu du, kitzikatu du, eragin du // hacer salir, poner en movimiento, hacer levantar; excitar, estimular, provocar.

excītus, *a*, *um*, edo **excītus**, *a*, *um*, pp. > *excio*.

excīvi, perf. > *excio*.

ex-clāmo 1: oihu egin du, deiadar egin du, ozenki esan du // gritar, exclamar, decir en alta voz.

ex-clūdo, *clūsi, clūsum* 3 (*ex, claudio*): kanpoan utzi du, baztertu du // excluir, dejar fuera.

excucurri, perf. > *excurro*.

ex-cūdo, *cūdi, cūsum* 3: aterarazi du (joka); forjatu du, eratu du // hacer salir, hacer saltar (a golpes); forjar, moldear.

ex-curro, [*cu*]curri, *cursum* 3: lasterka atera da; sarraldia egin du // salir corriendo; hacer una incursión.

excursio, *ōnis* f: txango, irtenaldi; erasoko sarraldi, erasoaldi // excursión, expedición; correría, incursión.

excursus, *ūs* m > *excursio*.

excūsātio, *ōnis* f: aitzakia, desenkusa // excusa, pretexto.

ex-cūso 1 (*ex, causo*): zuritu du; aitzakia jarri du; desenkusatu da // excusar, disculpar; pretextar; excusarse.

excussi, perf. > *excutio*.

excussus, *a, um*, pp. > *excutio*.

excūsus, *a, um*, pp. > *excudo*.

ex-cutio, *cussi, cussum* 3 (*ex, quatio*): astindu du; eraitsi du, (kolpe batez, astinduz) atera du edo erorarazi du // sacudir; derribar, hacer salir o hacer caer (de un golpe, sacudiendo).

exēgi, perf. > *exigo*.

exemplar, *āris* n: kopia, aldaki; eredu // copia, ejemplar; modelo.

exemplum, *i* n: eredu; adibide; kopia, aldaki // modelo, ejemplo; imitación, copia, transcripción.

ex-eo, *ii* [īvi], *itum* 4: kanpora joan da, atera da, irten da // salir.

ex-erceo, *ercui, ercitem* 2 (*ex, arceo*): astindu du, mugiarazi du, ibiliarazi du, artegatu du, eragin dio, lana eman dio; etengabe landu du; trebatu du; -n aritu da, -n jardun du // agitar, tener en movimiento, no dejar en reposo, inquietar, hacer trabajar; trabajar sin descanso; ejercitar, adiestrar, ejercer, practicar.

exercitātio, *ōnis* f: ariketa // ejercicio.

exercito 1: maiz aritu da, jardun du, trebatu du // ejercitar con frecuencia.

exercitus, *a, um*, pp. > *exerceo* trebatu(a); artegatu(a); neketsu // adiestrado; atormentado, inquieto; penoso.

exercitus, *ūs* m: armada, tropak; oinezko soldaduak; oste, multzo, jendetza // ejército, tropas; infantería; multitud.

exercui, perf. > *exerceo*.

exf... > *eff...*

ex-haurio, *hausi, haustum* 4: hustu du, ahitu du; burutu du // vaciar, agotar, apurar; llevar a término.

ex-hibeo, *hibui, hibitum* 2 (*ex, habeo*): erakutsi du, agertu du, aurkeztu du; ekarri du // presentar, exhibir, mostrar; causar.

ex-hortor 1: (hitz suharrez) adoretu du, bultzatu du, akuilatu du // exhortar, animar.

ex-igo, *ēgi, actum* 3 (*ex, ago*): kanporatu du, jaurti du; burutu du; (bizitza, denbora...) igaro du; hertsiki eskatu du, galde egin du; neurtu du, aztertu du // echar fuera, expulsar, arrojar; llevar a cabo; pasar (la vida, el tiempo...); exigir, reclamar; medir, examinar.

exiguē: urri, hertsiki // exiguamente, estrechamente.

exiguitās, *ātis* f: urritasun, laburtasun // escasez; brevedad.

exiguus, *a, um*: txiki, urri, eskas // exiguo, escaso.

exii, perf. > *exeo*.

eximiē: bikain, bereziki, ederto // excelentemente, especialmente, espléndidamente.

eximius, *a, um*: txit bikain, gailen // eximio, excelente.

ex-inānio 4: hustu du; arpilatu du, harrapakatu du // vaciar; saquear, arruinar.

existimātio, *ōnis* f: iritzi(a); ospe, entzute // opini3n; consideraci3n, reputaci3n.

ex-istimo 1 (*ex, aestimo*): -tzat eduki du, -tzat jo du; uste izan du, iritzi dio; balioetsi du // juzgar, considerar; estimar, apreciar.

exitium, *ii* n: hondamen // ruina, desastre, perdic3n.

exitus, *a, um*, pp. > *exeo*.

exitus, *ūs* m: irtete, irteera; bukaera; (gertaera baten) ondorio // salida; fin; resultado.

exīvi, perf. > *exeo*.

ex-orior, *ortus sum* 4: jaio da, sortu da // nacer, surgir.

ex-orno 1: hornitu du; prestatu du; apaindu du // equipar; preparar; adornar.

ex-ōro 1: arrenka eskatu du; erreguka lortu du // rogar con insistencia; conseguir con ruegos

exortus, *a, um*, pp. > *exorior*.

expecto > *expecto*.

ex-pedio 4 (*ex, pes*): askatu du, libre utzi du, trabak kendu ditu; prestatu du;

azaldu du // desenredar, librar, desembarazar; dejar listo, preparar; explicar;

□ (inperts.) *expedit*: komeni da, onuragarria da // conviene, es ventajoso.

expeditē: trabarik gabe, aise // desembarazadamente, f3cilmente.

expeditus, *a, um*, pp. > *expedio*

trabarik gabe(ko), aske; zamarik gabe(ko), arinki armatu(a); aise, eskuragarri; prest // desembarazado, libre; sin bagajes, armado a la ligera; c3modo, accesible; dispuesto.

ex-pello, *puli, pulsum* 3: egotzi du, bota du, urrundu du, jaurti du // expulsar, echar, lanzar.

ex-pendo, *pendi, pensum* 3: arretaz pisatu du; haztatu du, aztertu du; ordaindu du // pesar cuidadosamente; sopesar, apreciar; pagar.

ex-pergē-facio, *fēci, factum* 3: esnatu du, iratzarri du // despertar.

ex-pergisor, *perrectus sum* 3: esnatu da, ernatu da; konortera etorri da // despertarse; volver en s3.

ex-prior, *pertus sum* 4: probatu du; esperientziaz ikasi du; saiatu da-du; jasan du // experimentar, probar, poner a prueba; aprender por experiencia; intentar; soportar.

experrectus, *a, um*, pp. > *expergisor*.

ex-pers, *ertis (ex, pars)*: (-ik) ez duen, (-ik) gabeko // que no tiene parte de, desprovisto de.

expertus, *a, um*, pp. > *experior*

eskarmentudun, trebatu(a) // experimentado

ex-peto, *īvi, itum* 3: irrikaz nahi izan du; erreklamatu du, galdetu du, hertsiki eskatu du; -ra jo du // desear con ansia; reclamar; tender hacia.

ex-pio 1: (bekatua, errua, profanazioa) garbitu du // expiar, purificar.

ex-pleo, *plēvi*, *plētum* 2: bete du, guztiz bete du; osatu du; asebate du; burutu du // rellenar; completar; satisfacer; cumplir.

ex-plico, *āvi* [ui], *ātum* [itum] 1: zabaldu du, hedatu du, destolestu du; askatu du, libratu du; azaldu du, kontatu du, argitu du; burutu du // desartollar, extender, desplegar; desembarazar, liberar, desenredar; explicar, exponer, interpretar; llevar a cabo.

ex-plōdo, *plōsi*, *plōsum* 3 (*ex*, *plaudo*): arbuaiatu du, uhukatu du, oihuka eraso dio; egotzi du // rechazar, abuchear; arrojar.

ex-plōrātor, *ōris* m: esploratzaile, behatzaile; espioi, zelatari // esplorador; espía.

ex-plōro 1: esploratu du, miatu du // explorar, espíar.

explōsi eta **explōsus**, *a*, *um*, perf. eta pp. > *explodo*.

ex-pōno, *posui*, *positum* 3: kanpoan jarri du, agerian jarri du, aurkeztu du; arriskatu du, (babes gabe) utzi du; azaldu du; lehorreratu du // poner fuera, exponer; desembarcar.

ex-porto 1: kanpora eraman du; esportatu du; kanporatu du, atzeriratu du, deportatu du // llevar fuera; exportar; desterrar, deportar.

ex-posco, *poposci*, - 3: eskatu du, behin eta berriz, hertsiki eskatu du // pedir con insistencia, reclamar.

expositus, *a*, *um*, pp. > *expono*.
ireki(a), adeitsu; ulergarri // abierto, afable; comprensible.

exposui, perf. > *expono*.

ex-primō, *pressi*, *pressum* 3: zukutu du, prentsatu du, zapaldu du, estutu du; indarrez atera du, aterarazi du; nabarmendu du; adierazi du, azaldu du, ahoskatu du; itzuli du; irudikatu du // exprimir, prensar, comprimir; arrancar por la fuerza, extraer; resaltar; expresar, exponer, pronunciar; traducir; reproducir, representar.

expugnātio, *ōnis* f: armaz hartze, konkista // conquista.

ex-pugno 1: konkistatu du, menderatu du, armaz hartu du // conquistar, tomar por asalto, expugnar.

expuli, perf. > *expello*.

expulsus, *a*, *um*, pp. > *expello*.

ex-quīro, *quīsīvi*, *quīsītum* 3 (*ex*, *quaero*): ikertu du, arakatu du, miatu du, aztertu du; hautatu du; galdetu du // indagar, inquirir, rebuscar; escoger; examinar; preguntar, informarse.

ex-secror 1: madarikatu du; higuin izan du // maldecir, execrar; abominar.

ex-sequor, *secūtus sum* 3: azkeneraino jarraitu dio; lortu nahi izan du, bilatu du; esetsi dio, pertsegitu du, zigortu du, mendekatu du; bete du, amaitu du; zehatz-mehatz kontatu du, azaldu du // seguir hasta el fin; tratar de conseguir, buscar; perseguir, perseguir en justicia, castigar, vengar; cumplir, desempeñar; terminar; relatar, exponer.

exsilium, *ii* n: erbeste, deseri // destierro.

ex-sisto, *stīti*, - 3: atera da, irten da, jaiki da, sortu da; agertu da // salir, nacer, surgir; mostarse.

exspectātio, *ōnis* f: zain egote; itxaropen, esperantza; ikusmin, jakin-min // espera, esperanza; expectación.

ex-specto [*expecto*] 1: adi-adi begiratu dio; itxaron du, zain egon (irrikan edo beldurrez) // observar atentamente; esperar, aguardar (con deseo o temor).

ex-spīro 1: arnasa bota du, jariatu; amaitu da, azken arnasa eman du; itzuri da // exhalar, soplar; expirar; escaparse.

ex-spolio 1: -z erabat gabetu du, arpilatu du, harrapakatu du // despojar por completo, expoliar, saquear.

ex-stinguo, *stinxi*, *stinctum* 3: itzali du, amatatu du, hil du; ezabatu du // extinguir, apagar; hacer morir, borrar.

exstiti, perf. > *exsisto*.

ex-sto, -, - 1: -en gainetik irten da, -tik atera da; gelditu da; agertu da // sobresalir; quedar; mostrarse.

ex-struo, *struxi*, *structum* 3: eraiki du; pilatu du, metatu du // levantar, construir; acumular.

exsul, *sulis* m eta f: erbesteratu(a) // desterrado.

ex-sulo 1: erbestean egon // estar desterrado.

ex-sulto 1 (*ex*, *salto*): jauzi egin du, salto egin du; pozez jauzi egin du; asaldatu da, berotu da; harropuztu da // saltar, brincar; saltar de alegría; exaltarse; envanecerse.

ex-supero 1: gaintitu du; goratu da, gailendu da // sobrepasar, rebasar; elevarse, sobresalir.

exta, *ōrum* n pl.: erraiak // entrañas.

ex-templō: adlg. berehala // adv. al momento, enseguida.

ex-tendo, *tendi*, *tentum eta tensum* 3: hedatu du, zabaldu du, luzatu du // extender, desplegar, alargar.

exter > *exterus*.

exterior, *ius* (konp. > *exter*): kanpoko aldean dagoen, kanpoko // exterior, el de más afuera.

externus, *a*, *um*: kanpoko, kanpotar, arrotz, atzerriko, atzerritar // exterior, de fuera, extranjero.

ex-terreo, *terrui*, *territum* 2: izutu du, uxatu du // espantar, aterrar.

exterus, *a*, *um*: kanpoko, kanpotar, arrotz, atzerriko, atzerritar // exterior, de fuera, extranjero.

ex-timesco, *timui*, - 3: izutu da; beldur handia izan du, oso beldur izan da // espantarse; temer.

ex-tollo, *ex-tuli*, - 3: altxatu du, jaso du; goraipatu du, goratu du // levantar; ensalzar, alabar.

extrā: adlg. kanpoan, kanpora; prep. ak. -tik, -z kanpo(ra), gabe // adv. fuera, afuera; prep. de ac. fuera de, sin;

□ *extra quam*: izan ezik, salbu // excepto.

ex-traho, *traxi*, *tractum* 3: atera du; luzatu du, geroratu du, atzeratu du // sacar, extraer; prolongar, dejar pasar (el tiempo).

extrēmus, *a*, *um* (superl. > *exter*): muturreko, azken, urrunen, kanpokoan // el más exterior, extremo, último.

ex-trīco 1: (korapiloak) askatu ditu; atera du // desenredar; sacar.

extuli, perf. > *effero*.

exuo, *ui*, *ūtum* 3: biluzi du, erantzi du; -z gabetu du, kendu du // desnudar; despojar, quitar; quitarse.

exuviae, *iārum* f pl.: (garaituari kentzen zaizkion) jantzi edo armak, (ehizari kentzen zaion) larru, biluzkin(ak), harrapakin // vestido o armas (que se quita al vencido); piel (que se quita al animal); despojos, botín.

F

faba, *ae* f: baba // haba.

fābella, *ae* f: ipuin, pasadizo, alegia labur // cuento, historieta, fabulilla.

faber, *bri* m: langile, eskulangile // obrero, artesano.

fābula, *ae* f: alegia, elezagar; esamesa; antzerki-lana // fābula; hablilla; obra teatral.

facētus, *a, um*: dotore; jostalari, zirtolari; barregarri // elegante; alegre, humorístico.

faciēs, *ēi* f: itxura, antz; aurpegi // apariencia; rostro, cara.

facilis, *e*: erraz; adeitsu, lagunkoi // fácil; de trato fácil, afable.

facile: adlg. erraz, aise; gogo onez; argi eta garbi // adv. fácilmente; de buena gana; sin duda.

facilitās, *ātis* f: erraztasun; adeitasun // facilidad; facilidad de trato, afabilidad.

facinus, *oris* n: ekintza; (gehienean txarrera hartuta) gaiztakeria, krimen // acción, hecho; (generalmente en mal sentido) fechoría, crimen.

facio, *fēci*, *factum* 3: egin du; -arazi du-dio, eragin du-dio, sortu du; ari izan da, -n aritu da, -n jardun du; (kaltea, galera)

jasan du; (gen.ekin) -tzat eduki du; eman dezagun, egin dezagun; (opagaia) hil du // hacer, construir, fabricar; hacer que, causar; actuar, practicar, ejercer; sufrir (un daño, una pérdida); (con gen.) tener en, estimar en; hacer como que, suponer que; sacrificar (una víctima);
 iter facere: bide egin du // caminar;
 impetum facere: eraso egin // atacar;
 parvi, magni facio: gutxitzat, askotzat daukat // tengo en poco, en mucho.

facis, gen. > *fax*.

factio, *ōnis* f: fakzio, bando, talde, alderdi // facción, bando, partido.

factus, *a, um*, pp. > *facio*.

factum, *i* n: egin(a), ekintza, egite, egitate // hecho, acción.

facta, *ōrum* n pl.: ekintza gogoan-garriak, egitandiak // hechos ilustres, hazānas.

facultās, *ātis* f: ahalmen, gaitasun, erraztasun; aukera; hornidura, baliabideak // facultad, facilidad; posibilidad, ocasión; provisión, recursos.

fācundia, *ae* f: etorri; hitz-jario // facundia, facilidad de palabra.

fācundus, *a, um*: etorri handiko; hitz-jario // facundo, con facilidad de palabra.

faenerātor, *ōris* m: mailegu-emaile; lukurari // prestamista; usurero.

faenus, *oris* n: (diruak ematen duen) interes, irabazi(a), etekin // interés (que da el dinero), lucro, beneficio.

fāgus, *i* f: pago // haya.

falcārius, *ii* m: igitaigile // fabricante de hoces.

falcis, gen. > *falx*.

fallax, *ācis*: gezurti, gezurrezko // falaz, engañador.

fallo, *fefelli, falsum* 3: engainatu du, huts egin dio; (zina, itxaropena...) ez du bete, (hitza) jan du; oharkabea (egin du, joan da...), itzuri zaio, ezkutatu zaio; (pas.) engainatu da // enganar; ser infiel a, faltar a; pasar inadvertido a, ocultarse a; (pas.) engañarse.

falsus, *a, um*, pp. > *fallo*
sasi-, faltsu, gezurrezko // falso.

falx, *falcis* f: igitai // hoz.

fāma, *ae* f: ospe, hots, fama; esamesa, ahoz aho dabilen berri, jendearen iritzi; entzute, omen // fama, opinión pública; rumor; reputación.

famēs, *is* f: gose // hambre; aidez.

familia, *ae* f: etxe bateko esklabo guztiak; familia // conjunto de los esclavos de una casa; familia;
□ *pater, māter familias*: aita, ama familiako // padre, madre de familia.

familiāris, *e*: etxe bateko esklaboei dagokien; familiako, familiaren, etxeko; adiskide min; ezagun // que forma parte de los esclavos de una casa; familiar, de la casa; amigo íntimo.

familiāritās, *ātis* f: adiskidetasun, etxekotasun, konfiantza // amistad, familiaridad.

fānum, *i* n: tenplu // templo.

farcio, *farsi, fartum* 4: bete du, guztiz bete du; bete-bete egin du, gizendu du, galkatu du // llenar, rellenar; cebar, embutir.

fās n dekl. ez.: jainkozko lege edo zuzenbide, zilegi, zuzena // ley o derecho divino, lo lícito, lo justo.

fascis, *is* f: sorta; (pl.) *fascēs*, haga-sorta (kontsulen ikur); kontsulatuaren duintasun, aginpide // haz; (pl.) haces, fascēs

(insignia consular); dignidad, poder del consulado.

fassus, *a, um*, pp. > *fateor*.

fastī diēs m pl.: zorioneko egunak (justizia administratzeko egokiak) // días fastos (aptos para administrar justicia).

fastīdium, *ii* n: nazka, higuin; gogaitasun; erdeinu, arbuio // asco, repugnancia; hastío; desprecio.

fātālis, *e*: patuaren, halabeharrezko; profetiko; zorigaiztoko // fatal, del hado; profético.

fateor, *fassus sum* 2: aitortu du // confesar, reconocer.

fatigātio, *ōnis* f: neke, akidura, unadura // fatiga.

fatigo 1: nekatu du, akitu du; gogaitu du, nekarazi du; oinazetu du // fatigar; molestar; atormentar.

fātus, *a, um*, pp. > *for*.

fātum, *i* n: patu, halabehar; iragarpen // hado, destino; predicción.

faucēs, *ium* f pl. [sg.ean ab. bakarrik *fauce*]: eztarri, zintzur; (mendi arteko) zintzur, haitzarte // garganta, fauces; desfiladero, paso angosto.

fautus, *a, um*, pp. > *faveo*.

faveo, *fāvi, fautum* 2: mesede egin dio, lagundu dio, aldekoa da // ser favorable a, favorecer.

favor, *ōris* m: uste on, onginahi; txalokatze, gorakatze // favor, simpatía; aclamación, aplauso.

fax, *facis* f: zuzi, lastargi // tea, antorcha.

febris, *is* f: sukar // fiebre.

februārius, *ii* m: otsail // febrero.

februārius, *a, um*: otsaileko, otsailaren // de febrero.

fēci, perf. > *facio*.

fefelli, perf. > *fallo*.

fel, *fellis* n: behazun; mingostasun // hiel; amargura.

felicitās, *ātis* f: zorion, zoriontasun; zori on, zorte // felicidad, suerte.

feliciter: zori on; zorte on! // felizmente; ¡buena suerte!

felix, *īcis*: emankor; zorioneko; aldeko // fecundo, fértil; feliz; favorable.

fēmina, *ae* f: eme, emakume // hembra, mujer.

fenestra, *ae* f: leiho // ventana.

fera, *ae* f: piztia // fiera.

ferax, *ācis*: emankor // fértil, fecundo.

ferbui, perf. > *ferveo*.

ferē: adlg. ia, ia-ia; -en bat, gutxi gorabehera // adv. casi; aproximadamente.

ferentārius, *ii* m: soldadu arinki armatu (arkuz eta habailaz) // soldado armado a la ligera (con arco y honda).

fēriae, *iārum* f pl.: jaiegunak // días de fiesta.

ferio, -, - 4: zauritu du, kolpatu du; jo du // herir; golpear.

feritās, *ātis* f: basatasun, gogortasun // fiereza.

fermē > *ferē*.

fero, *tuli*, *lātum* 3: eraman du, ekarri du; jasan du; aurkeztu du; eman du; (hitzak, berriak eraman ditu) kontatu du, esan du // llevar, traer, llevarse; soportar, sufrir; presentar; producir; (llevar palabras, noticias) contar, relatar.

ferōcia, *ae* f > *ferocitas*.

ferōcītās, *ātis* f: basakeria, suhartasun; harrokeria // ferocidad; fogosidad; arrogancia.

ferōciter: harrokeriaz; ausarki // con arrogancia; audazmente.

ferox, *ōcis*: basati, basa; anker; oldarkor, oldartsu; ausart, adoretu // feroz, salvaje; impetuoso, intrépido.

ferreus, *a, um*: burdin-, burdinazko; gogor // férreo, de hierro; duro.

ferrum, *i* n: burdina; arma // hierro; arma;

□ *ferro ignique*: su eta gar // a sangre y fuego.

fertilis, *e*: emankor, ugalkor, jori; ernakor, emankortzaile; onuragari // fértil, fecundo; fertilizante, fecundante; provechoso.

ferus, *a, um*: basati, basa // fiero, salvaje.

ferveo, *ferbui*, - 2: irakin du; sutan egon, berotu da, sutu da // hervir; estar lleno de ardor, enfurecerse.

fessus, *a, um*: nekatu(a), akitu(a) // fatigado, agotado.

festinātio, *ōnis* f: presa // prisa, apresuramiento.

festīno 1: presatu da-du, lehiatu da-du, bizkortu da-du // apresurarse; apresurar.

festīnus, *a, um*: presatsu, lehiatsu // presuroso.

festus, *a, um*: jai-; alai // de fiesta, festivo.

festum, *i* n: jaiegun // fiesta.

fētidus > *foetidus*.

fictio, *ōnis* f: sortze, eratze, eraketa; itxuratze, itxura; balizko uste, hipotesi // formación, creación; ficción, simulación; suposición, hipótesis.

fictus, *a, um*, pp. > *tingo*.

fidēlis, *e*: leial, fidel, fidagarri // fiel, leal, fiable.

fidēlitās, *ātis* f: leialtasun // fidelidad.

fidēliter: zintzo, leialki // fielmente, lealmente.

fidēs, *ēi* f: konfiantza, uste on, fidantzia, berme; (emandako) hitza; babes; leialtasun, zintzotasun, ziurtasun // confianza, fe, crédito, garantía; palabra dada; protección; lealtad, rectitud; certeza;

□ *fidem dare, fidem exsolvere*: hitza eman, hitza bete // dar su palabra, cumplir su palabra;

□ *fidem habere, tribuere, adiungere*: -i sinetsi // dar crédito a;

□ *fidem facere*: konfiantza eman // inspirar confianza.

fidī, perf. > *findo*.

fido, *fīsus sum* 3: fidatu da, fio da, uste ona izan du // confiar en.

fidūcia, *ae* f: konfiantza, uste on; fiduzia, konfiantzazko bati ondasunak lagatze // confianza; fiducia, cesión fiduciaria.

fidus, *a, um*: fidel, fidatzeko moduko, fidagarri // fiel, fiable.

figo, *fixi, fixum*: 3: finkatu du, iltzatu du // fijar, clavar.

figūra, *ae* f: itxura, irudi, era; izaera // configuración, figura, forma; manera de ser.

filia, *ae* f: alaba // hija.

filius, *ii* m: seme; (pl.) seme-alabak // hijo.

filum, *i* n: hari // hilo.

findo, *fidī, fissum* 3: zeharkatu du, banandu du // hender, separar, dividir.

fingo, *finxi, fictum* 3: eratu du, itxuratu du, moldatu du; konpondu du; hezi du; irudikatu du; -ena egin du, itxura egin du; asmatu du // formar, modelar; arreglar; imaginar; representar; fingir.

fīnio 4: mugatu du; zehaztu du; bukatu du, amaitu du // limitar; precisar, determinar; poner fin, acabar;

□ (pas.) *fnitur*: bukatzen da, hiltzen da // se termina, muere.

fīnis, *is* m eta f: muga; bukaera; helburu; (pl.) herrialde, lurralde // límite, frontera; fin, término, finalidad; (pl.) país, territorio.

fīnitimus, *a, um*: mugakide; antzeko // vecino, límite, lindante; semejante.

finxi, perf. > *fingo*.

fio, *factus sum* [inf. *fieri*]: egin da, bihurtu da; gertatu da // ser hecho, hacerse; resultar.

fīrmē: irmo, sendoki, tinko // sólidamente, firmemente.

fīrmīter: irmo, sendoki // firmemente.

fīrmo 1: sendotu du, indartu du, finkatu du, bermatu du // afirmar, fortalecer, confirmar, asegurar.

fīrmus, *a, um*: sendo, irmo, tinko, gogor // firme, sólido, seguro, fuerte.

fīssus, *a, um*, pp. > *findo*.

fīsus, *a, um*, pp. > *fido*.

fixi, perf. > *figo*.

fixus, *a, um*, pp. > *figo*
irmo, finko // fijo.

flāgitium, *ii* n: desohore, lotsagarrikeria // infamia, acción vergonzosa.

flāgīto 1: behin eta berriz eskatu du // pedir con insistencia.

flagro 1: sutan egon; irrikitan egon // arder; desear ardentemente.

flāmen, *inis* m: flamen (apaiz) // flamen (sacerdote).

flamma, *ae* f: gar, sugar // llama.

flātus, *ūs* m: putz, arnasa, hats; haize, haizekirri // soplo, respiración, aliento; viento, brisa.

flāvus, *a, um*: horixka, gorrixka // rubio, amarillo, rojizo.

flecto, *flexi, flexum* 3: tolestu du, okertu du, makurtu du; biratu du, bihurtu du, itzularazi du; -ra bihurtu da // doblar, encorvar, torcer; girar, volver, hacer volver, cambiar de dirección.

fleo, *ēvi, ētum* 2: negar egin du; deitoratu du // llorar.

flētus, *a, um*, pp. > *fleo*.

flētus, *ūs* m: negar, lantu // llanto, lloro.

flēvi, perf. > *fleo*.

flexi, perf. > *flecto*.

flexus, *a, um*, pp. > *flecto*.

flexus, *ūs* m: bihurgune, bira; gorabehera // curva, vuelta; alteración.

flo 1: putz egin du // soplar.

flōrens, *ntis*, p. pres. > *floreo*

loredun, loretsu, loretan dagoen; gora doan; distiratsu // florido, floreciente; brillante.

flōreo, *ui*, - 2: loratu da; gora egin du // florecer.

flōs, *ōris* m: lore // flor.

fluctuo [eta -or] 1: (itxasoa) harrotu da; uhinen mende ibili da; gorabeherak izan ditu; zalantzan egon // agitarse (el mar); flotar a merced de las olas; fluctuar; vacilar.

fluctus, *ūs* m: uhin; uhinak, ur-laster; asaldura // ola, oleaje; agitación.

fluens, *ntis*, p. pres. > *fluo*.

jariakor; (hitzaldi baten estilo) arin; lasai, nasai; makal, bigun, guritu // fluido; suelto, flotante; lacio; flácido, flojo, relajado.

flūmen, *inis* n: ur-laster, ibai // corriente, río.

fluo, *fluxi, fluxum* 3: jario zaio, isuri da, irristatu da, tantakatu da; hedatu da; erori da, makaldu da // fluir, manar, deslizarse, gotear, destilar, emanar; difundirse; caer, decaer, languidecer.

fluvius, *ii* n: ibai // río.

fluxi, perf. > *fluo*.

fluxus, *a, um*, pp. > *fluo*

jariakor; arin; ahul, motel, makal; igarokor; badaezpadako, koloka dagoen; nagí // fluido; flojo, flotante; débil, percedero; poco sólido, inseguro; muelle, enervado.

fluxus, *ūs* m: jario, ur-laster, haize-laster // flujo, corriente.

foculus, *i* m: su txiki, sutontzi // hogar pequeño, hornillo, brasero.

focus, *i* m: sutondo, supazter; (beheko) su; etxe; su-meta // hogar; casa; pira.

fodio, *fōdi, fossum* 3: zulatu du; ziztatu du // cavar; pinchar.

foedē: itsuski, era izugarrian // horriblemente.

foederis, gen. > *foedus, eris*.

foedo 1: itxustu du, desitxuratu du; zikindu du, lohitu du; laidoztatu du, desohoratu du // afear, desfigurar; ensuciar; mancillar, profanar.

foedus, *a, um*: itsusi // feo.

foedus, *eris* n: itun // pacto, alianza.

foeteo, -, - 2: kirastu da-du, kiratsa jario zaio; nazkagarria izan da // oler muy mal, apestar; ser asqueroso.

foetidus, *a, um*: kirastu, kirasdun // fétido.

folium, *ii* n: hosto, orri // hoja.

follicis, *is* m: hauspo; larruzko poltsa; baloi // fuelle; bolsa de cuero; balón.

fons, *ntis* m: iturri // fuente.

for, *fātus sum* 3: hitz egin du, esan du // hablar, decir.

forās: adlg. kanpora // adv. afuera.

fore: *sum* aditzaren geroaldia // futuro del verbo *sum*.

fores, *ium* f pl.: ate // puerta.

foris: adlg. kanpoan, kanpotik // adv. fuera, de fuera.

forma, *ae* f: itxura, irudi; edertasun; era, eredu, molde // forma, figura, imagen; hermosura; modelo, molde.

formīdo, *inis* f: izu-ikara // espanto.

formōsitās, *ātis* f: edertasun // hermosura.

formōsus, *a, um*: eder // hermoso.

fornax, *ācis* m: labe, sutegi // horno, fragua.

fors f (nom. eta ab. sg. bakarrik): zori, zorte // suerte, fortuna.

forte: halabeharrez, ustekabean; agian // por casualidad; tal vez, quizá.

forsan, **forsit**, **forsitan**: adlg. agian, beharbada // adv. quizá, acaso, tal vez.

fortasse: adlg. agian, beharbada; gutxi gorabehera // adv. quizá, acaso, tal vez; poco más o menos.

forte, ab. > *fors*.

fortis, *e*: indartsu, kementsu; adoretzu, bihozturn // fuerte; animoso, valiente.

fortiter: indarrez, gogorki, sendoki; adorez, kemenez // fuertemente, animosamente, valerosamente.

fortitūdo, *inis* f: indar, adore, kemen // fuerza, ánimo, bravura.

fortuītus, *a, um*: ustekabeko, ezusteko // fortuito, accidental, improvisado.

fortūna, *ae* f: zori, zorte; zori on; (gizarte-) maila; Fortuna (jainkosa) // fortuna, suerte; situación (social), (la diosa) Fortuna.

fortūnae, *ārum* f pl.: aberastasun, ondasun // bienes de fortuna, riqueza.

fortūnātus, *a, um*: zoriontsu; aberats // afortunado; rico.

forum, *i* n: plaza nagusi, azoka, merkatu, foro; arazo publikoak, negozioak // plaza pública, mercado, foro; la vida pública, los negocios.

fossa, *ae* f: hobi, zulo, lubaki, erreten // foso, hoyo, trinchera; canal.

fossus, *a, um*, pp. > *fodio*.

fōtus, *a, um*, pp. > *foveo*.

fovea, *ae* f: zulo, hobi // hoyo, foso.

foveo, *fōvi, fōtum* 2: berotu du, babestu du; gorde du, zaindu du; -en alde izan da // calentar, abrigar; guardar, cuidar; favorecer.

fractus, *a, um*, pp. > *frango*
hautsi(a), puskatu(a), leher egin(a), lur jota // roto, abatido.

fragilis, *e*: hauskor, apurkor // frágil.

frango, *frēgi, fractum* 3: hautsi du, apurtu du // romper.

frāter, *tris* m: anaia, neba // hermano.

frāternē: anaitasunez, haurridetasunez // fraternalmente.

frāternus, *a, um*: anaitasunezko, haurridetasunezko; anaien arteko, senideen arteko; anaiaren, nebaren // fraterno; de hermano.

fraus, *fraudis* f: iruzur; gezur // fraude; engaño.

frēgi, perf. > *frango*.

fremitus, *ūs* m: burrunba; orru, marru; marmar // zumbido; bramido; murmullo.

fremo, *ui, itum* 3: burrunba egin du; orro egin du, marruma egin du; xuxurlatu du // zumbar; bramar, rugir, mugir; murmurar.

frend[e]o, -, *frēsūm* 3: hortzak karraskatu ditu; sumindu da // rechinat de dientes; indignarse.

frēnum, *i* n [pl. *frēna, ōrum* n eta *frēni, ōrum* m]: aho-uhal, brida // freno, brida; □ *frenos dare*: brida lasaitu // aflojar las riendas.

frequens, *ntis*: sarri(tako), maizko, ardurako; ohiko, usu, arrunt; ugari, samaldan; jendetsu, joera handiko, -z bete(a) // asiduo; frecuente, ordinario; concurrido, frecuentado; numeroso, en gran número.

frequenter: adlg. sarri, maiz; saldoan, samaldan // adv. a menudo; en gran número.

frequentia, *ae* f: (jende-) joera handi, jendetza; ugaritasun // gran afluencia, muchedumbre; abundancia.

frequentio 1: -ra maiz joan da, maiz egin du; jendeztatu du, populatu du; (talde handia) bildu du; (zeremonia, elizkizuna...) egin du // frecuentar; poblar, llenar de gente; reunir en gran número; celebrar.

fretum, *i* n: itsasarte, itsadar // estrecho, brazo de mar.

frētus, *a, um*: -n uste ona izanik, -n fidatu(a) // conñado en.

fretus, *ūs* m > *fretum*.

frico, *fricui, fric[ā]tum* 1: igurtzi du // frotar.

frigidus, *a, um*: hotz // frío.

frīgus, *oris* n: hotz // frío.

frons, *ondis* f: hostotza, hostaila // fronda, follaje.

frons, *ontis* f: bekoki, kopeta; begitarte; aurrealde // frente; semblante; fachada.

fructuōsus, *a, um*: fruitu-ekarle, fruitutsu, emankor; onuragarri // fructífero, fecundo, fértil; provechoso.

fructus, *ūs* m: fruitu, ondorio, emaitza; produktu, mozkin, ekoizkin; irabazi(a), etekin; onura, sari; gozamen // fruto, product; provecho, renta, beneficio; ventaja, recompensa; goce, usufructo, placer.

frūgifer, *a, um*: fruitu-ekarle, fruitutsu; emankor // fructífero, fructuoso.

frūgis, gen > *frux*.

frūmentārius, *a, um*: gariaren, gari-, gal_ // relativo al trigo.

frūmentātor, *ōris*: gari-merkatari; gari-biltzaile // mercader de trigo; soldado enviado a recoger trigo.

mūnus, *eris n*: kargu, eginbide, eginbehar; lan, zerbitzu; mesede, opari; (politikariek herriari eskainitako) ikuskizun (batez ere, gladiadorena) // cargo, funció, obligació; tarea, obra, servicio; favor, regalo; espectáculo público (sobre todo el de gladiadores).

murmur, *uris n*: marmar, zurrumurru; xuxurla; burrunba // murmullo, rumor; susurro; zumbido.

mūrus, *i m*: harresi, murru // muro, muralla

mūs, *mūris m*: sagu // ratón.

mūsicus, *a, um*: musika-, musikal; musikari // músico, musical.

mūsica, *ae*: musika // música.

mūtābilis, *e*: aldakor // mudable.

mūtātio, *ōnis f*: aldaketa, aldatze; truke // cambio; intercambio.

mūto 1: aldatu du-da // cambiar.

mūtus, *a, um*: mutu, isil // mudo, silencioso.

mūtuus, *a, um*: elkarganako, elkarrekiko, elkarren arteko...; mailegatu(a), maileguzko // mutuo, recíproco; prestado.

mūtuum, *i n*: mailegu // préstamo.

N

nactus, *a, um*, pp. > *nanciscor*.

nam: junt. bait-, -eta, zeren; bada // conj. pues, ya que; en efecto.

namque > *nam*.

nanciscor, *na[n]ctus sum* 3: lortu du, erdietsi du; aurkitu du (ustekabeen, nekerik gabe); harrapatu du // obtener, conseguir; alcanzar (sin esfuerzo), encontrar (sin buscarlo); coger.

nāris, *is f*: sudur, usaimen // nariz, olfato.

narro 1: kontatu du // narrar, contar.

nascor, *nātus sum [nascitūrus]* 3: jaioda // nacer.

nāsus, *i m*: sudur // nariz.

nātālis, *e*: jaiotze-, jaiot-, jaiotzeari dagokion // natal, del nacimiento.

nātālis, *is m*: jaiotegun // día del nacimiento.

nātio, *ōnis f*: herri, nazio; mota, klase, arraza, espezie // pueblo, nación; clase, raza, especie

nato *l*: igeri egin du // nadar.

nātū (*ab.* > *natus, us m*): jaiotzez, adinez // por el nacimiento, por la edad;

□ *grandis natu*: adin handiko // de edad avanzada;

□ *maior natu, minor natu*: zaharrago, gazteago // mayor, menor (en edad).

nātūra, *ae f*: izadi, natura; izaera // naturaleza.

nātus, *a, um, pp.* > *nascor*;

□ *natus sexaginta annos*: 60 urtekoa // de 60 años de edad.

nātus, *i m* eta **nāta**, *ae f*: seme, alaba // hijo, hija.

nāti, *ōrum m pl.*: seme-alabak, umeak, kumeak // hijos, críos.

naufragus, *a, um*: itsason galdutako, erreka jo duen, hondoratu(a) // náufrago, arruinado.

nausea, *ae f*: zorabio, goragale // mareo, náusea.

nauta, *ae m*: itsasgizon // marinero.

nāvālis, *e*: ontzi-, itsasontzi-; itsas // naval.

nāvālia, *ium n pl*: ontziola // astilleros.

nāvigium, *ii n*: ontzi // navío, nave.

nāvigo *l*: nabigatu da-du, ontziz ibili da // navegar.

nāvis, *is f*: ontzi, itsasontzi // nave;

□ *navis longa*: gerraontzi // nave de guerra;

□ *navis oneraria*: zamaontzi // nave de carga.

nē: junt. subjuntibo edo inperatiboarekin debekatu edo aurka aholkatzeko: *ne facias* (ez ezazu egin); ezezko konpletiboak: ez ...tzeko, ez dezan...; ezezko helburuzkoak: ez ...tzeko, ez dezan...; beldurreko aditzekin: *timeo ne veniat*: beldur naiz ez ote den etorriko, beldur naiz etor dadin; debekapeneko aditzekin ezezkoa ez da itzultzen (*veto ne veniat*: etortzea debekatzen diot) // conj. con subjuntivo o imperativo para prohibir: no (*ne facias*: no hagas); completivas negativas: que no; finales negativas: para que no, para no; con verbos de temor o prohibición no se traduce el valor negativo (*timeo ne veniat*: temo que venga; *veto ne veniat*: prohíbo que venga).

-ne (enklitiko): galderazko partikula; *meministene*: gogoratzen **al** zara?; *scisne an non*: ba **al** dakizu ala ez?; (zehar-galderetan) ea: *quaerit diine sint*: galdetzen du **ea** jainkoak diren. // partícula interrogativa; *meministene*: ¿te acuerdas? (en castellano no hace falta traducirla); *scisne an non*: lo sabes o no?; (en interrogativa indirecta) si: *quaerit diine sint*: se pregunta **si** existen los dioses.

nebula, *ae f*: laino; hodei // niebla; nube.

nec: junt. eta ez, ezta // conj. ni, y no.

nec-dum: adlg. eta oraindik ez // adv. y todavía no.

necessārius, *a, um*: halabeharrezko, beharrezko, premiazko; ezinbesteko; ahaide, adiskide // inevitable, necesario; apremiante; indispensable; pariente, amigo.

necessāriō: nahitaez, beharrez // por necesidad, forzosamente.

neceſse adj. n dekl. ez.: beharrezko, nahitaezko // necesario, inevitable.

necessitās, *ātis* f: behar, premia; halabehar // necesidad; destino.

necessitūdo, *inis* f: behar, premia; ahaidetasun-lotura, adiskidetasun-lotura; (pl.) ahaideak, adiskideak // necesidad; vínculo de parentesco, vínculo de amistad; (pl.) parientes, amigos.

necis, gen. > *nex*.

nec-ne: ala ez (galdera baten 2. atala) // o no (segundo miembro de una interrogación).

neco 1: hil du // matar.

necto, *nexui* eta *nexi*, *nexum* 3: korapilatu du, lotu du, elkarri lotu dizkio; bilbatu du, azpikeriaz prestatu du // anudar, atar, entrelazar; urdir, tramar.

ne-fandus, *a, um*: esan behar ez den, higuigarri // nefando, abominable.

nefāriē: modu higuigarrian, gaitzakeria handiz, legea hautsiz // de una manera abominable, impiamente, criminalmente.

ne-fārius, *a, um*: gaitzesgarri, donge, zital // abominable, criminal, malvado.

nefārium, *ii* n: krimen gaitzesgarri, gaitzakeria handi // crimen abominable.

ne-fās n dekl. ez.: jainkozko legearen aurkakoa; sakrilegio, donaste, krimen // lo contrario a la ley divina; sacrilegio, krimen, impiedad.

ne-fastus, *a, um*: jainkozko legeak debekatu(a), zilegi ez den; zorigaitzoko, zorigaitz-ekarle; oso txarra edo kaltegarri; madarikatu(a), malapartatu //

prohibido por la ley divina, nefasto, impío, maldito.

□ *dies nefasti*: zorigaitzoko egunak (auzietarako, tratuetarako zilegi ez diren egunak) // días nefastos: (días en que no se permiten asuntos públicos).

neglectus, *a, um*, pp. > *neglego* arreta gabe egin(a), gutxietsi(a) // descuidado, despreciado.

neglegens, *ntis*, p. pres. > *neglego* axolagabe, zabar // negligente, descuidado.

neglegenter: adlg. axola gabe, arduragabeki // negligentemente.

neglegentia, *ae* f: axolagabekeria, arduragabekeria, zabarkeria // negligencia, descuido.

neg-lego, *lexi*, *lectum* 3: ez du-dio konturik egin, -z ezaxolatu da // descuidar, no preocuparse de.

nego 1: ezetz esan du, ukatu du // decir que no, negar.

negōtium, *ii* n: zeregin, egiteko, lan; negozio; zailtasun; kontu, arazo // ocupación, trabajo, negocio, dificultad, asunto.

nēmo [ac. *nēmīnem*, dat. *nēmīni*]: inor ez; inongo... ez // nadie; ningún;

□ *nemo non*: denak // todos;

□ *non nemo*: batzuk // algunos.

nemus, *oris* n: baso, ibarbaso // bosque, soto.

neo, *nēvi*, *nētum* 2: irun du, haritu du, ehundu du, eho du // hilar, tejer.

nepōs, *ōtis* m: biloba, iloba; ondorengo // nieto; descendiente.

nēquam dekl. ez.: baliogabe, txar, alfer; alproja, zital, lotsagabe // sin valor, malo, inútil; vicioso, desvergonzado.

ne-quāquam: adlg. inola ere ez // adv. de ningún modo.

neque > *nec*.

nequedum > *necdum*.

ne-queo, *ivi*, *itum* 4: ezin izan du-da // no poder.

nē-quicquam, **nēquidquam** edo

nēquīquam: adlg. alferrik // adv. en vano.

nēquior, *ius*, konp. > *nequam*.

nēquissimus, *a*, *um*, superl. > *nequam*.

nēquiter: adlg. zitalki, gaizki // adv. vilmente, mal.

nēquitia, *ae* f: ezgaitasun; alferkeria, nagikeria; laxokeria, ustelkeria // inutilidad, nulidad; holgazanería; perversión, disipación.

nequīvi, perf. > *nequeo*.

nervus, *i* m: nerbio, zain, zurda; kemen // nervio, tendón, cuerda.

nescio, *īvi* [*īi*], *ītum* 4: ez du jakin // no saber.

nētus, *a*, *um*, pp. > *neo*.

ne-uter, *tra*, *trum*: bietako inor ez, bietako ezer ez, ez bata eta ez bestea // ninguno de los dos, ni uno ni otro.

nēvi, perf. > *neo*.

nex, *necis* f: hilketa // asesinato.

nexi edo *nexui*, perf. > *necto*.

nexus, *a*, *um*, pp. > *necto*.

nī: junt. ez baldin ba-; adlg. ez // conj. si no; adv. no;

□ *quid nī?*: zergatik ez? // ¿por qué no?

nīdus, *i* m: habia // nido.

niger, *gra*, *grum*: beltz // negro.

nihil n dekl. ez.: ezer ez; bat ere ez // nada;

□ *nihil non*: dena // todo;

□ *non nihil*: zerbait; pixka bat // algo.

nihilum, *i* n: ezer ez, ezerez // nada.

nimbus, *i* m: euri-zaparrada; hodei, euri-hodei, hodei beltz; mordo, pilo // aguacero; nube, nubarrón.

nīmīrum: adlg. noski, bai horixe // adv. en efecto, ciertamente, evidentemente.

nīmīs: adlg. gehiegi, -egi // adv. demasiado.

nīmīus, *a*, *um*: gehiegizko // excesivo, demasiado.

ningit, *ninxit*, -: elurra ari du, elurra egin du // nieva.

nī-si: junt. ez baldin ba-..., non eta ez... -(e)n; izan ezik, salbu // conj. si no; excepto si, a no ser que; excepto.

nīsus, *a*, *um*, pp. > *nitor*.

niteo, *ui*, - 2: distira egin du; itxura ona du, nabermendu da // brillar; tener buen aspecto.

nītīdus, *a*, *um*: garden, argi, distiratsu // nítido, brillante.

nītor, *nixus* [edo *nīsus*] *sum* 3: bermatu da; ahalegindu da // apoyarse en; esforzarse en.

nītui, perf. > *niteo*.

niveus, *a*, *um*: elur-antzeko, elur-, elurrezko, elurtsu, elurpeko // níveo, de nieve, cubierto de nieve.

nix, *nivis* f: elur // nieve.

nixus, *a*, *um*, pp. > *nitor*.

no 1: igeri egin du // nadar.

nōbilis, *e*: ezagun, ospetsu; noble; bikain // conocido, célebre; noble; excelente.

nōbilitās, *ātis* f: ospe; noblezia; aitoren semetasun; aitoren semeak, nobleak; bikaintasun // celebridad; nobleza; excelencia.

nōbilit̄er: adlg. dotore, nabarmenki // adv. con distinción.

nocens, ntis, p. pres. > *noceo*
kaltegarri; errudun // dañino; culpable.

noceo, *ui, itum* 2: kalte egin du // dañar.

noctis, gen. > *nox*.

noctū: gauez // de noche.

nocturnus, *a, um*: gaueko, gau-, gautar // nocturno, de noche.

nocui, perf. > *noceo*.

nōlo, *ui, - 3 (ne, volo)*: ez du nahi izan // no querer.

nōmen, *inis* n: izen; zor, kreditu (kontuen liburuan idatzitako izena); familia-izen, abizen // nombre; renombre; deuda, crédito (nombre escrito en el libro de cuentas); nombre de familia, gentilicio;

□ (ab.an) *nomine*: -en izenean, -en aitzakiaz // en nombre de, bajo pretexto de;

□ *nomen Mario est mihi*: Mario izena dut // tengo por nombre Mario;

□ *nomen dare, edere, profiteri*: izena eman du // alistarse;

□ *nomen deferre Marii*: Marioren aurkako salaketa jarri du // presentar una acusación contra Mario;

□ *nomina solvere*: zorrak ordaindu ditu // pagar deudas;

□ *nomina facere*: dirua maileguz eman du // prestar dinero.

nōmino 1: izendatu du; deitu dio, izena eman dio; aipatu du // nombrar; llamar; mencionar; designar, nominar.

nōn: ez // no.

nōnāgēs̄imus, *a, um*: laurogeita hamargarren; laurogeita hamarren // nonagésimo.

nōnāgintā dekl. ez.: laurogeita hamar // noventa.

non-dum: adlg. oraindik ez // adv. todavía no.

nongentēs̄imus, *a, um*: bederatzihungarren // noningentésimo.

nongenti, *ae, a*: bederatzehun // novecientos.

non-ne: (galdera zuzenetan) ez ote...?, ez al...?; (zehar-galderetan) ea ez, ez ote // (en interr. dir.) acaso no...?; (en interr. indir.) si no.

non-nullus, *a, um*: norbait, baten bat; batzuk // alguno.

nōnus, *a, um*: bederatzigarren; bederatziren // novena.

nōnae, *ārum* f pl.: nonak (hilabetearen 5. eguna; martxoan, maiatz, uztail eta urrian 7.a zen) // las nonas (5º día del mes; en marzo, mayo, julio y octubre era el 7º).

norma, *ae* f: arau, erregela, lege // norma, regla, ley.

nōs [nom., bok. eta ak. *nōs*; gen. *nostrum, nostri*; dat. eta ab. *nōbis*]: gu, geu // nosotros.

nosco, *nōvi, nōtum* 3: ezagutu du, -en ezaguera egin du; (aditz burutua burutugabe gisa itzultzen da) jakin du, ezagutu du; aztertu du; aitortu du // conocer; (perf. con valor de pres.) saber, conocer; examinar; reconocer;

□ *novi, noveram; novisse, nosse*: bada- kit, banekien; jakin // conozco, conocía; conocer

noster, *tra, trum*: gure, geure; gutarrak // nuestro; los nuestros.

nota, *ae* f: marka, seinale, ikur, ezau- garri, zeinu, ohar; zentsorearen ohar,

gaitzespen // marca, señal, signo, nota; nota del censor, nota infamante.

nōtio, *ōnis* f: ezagutze, ezaguera, ezagutza; esanahi; (auzi bat) ezagutzeko eskumen // noción, conocimiento, idea; significación, derecho para conocer (de una causa).

nōtītia, *ae* f: entzute, ezagun(a) izate; ezagutza, ezaguera // notoriedad, ser conocido; conocimiento, idea.

noto 1: seinalatu du, markatu du; laburdura eta ikurrez idatzi du; oharretan idatzi du; (zentsoreak) gaitzetsi du, (bizio bat) egotzi dio; izendatu du, adierazi du; ohartu da, nabaritu du // señalar, marcar; escribir en abreviatura; censurar (los censores), tachar de; designar, indicar; anotar, observar, notar.

nōtus, *a, um, pp.* > *nosco*
ezagun // conocido.

novem dekl. ez.: bederatzi // nueve.

november, *bris, bre*: azaroko, azaroren // de noviembre.

november, *bris* m: azaro // noviembre.

nōvi, perf. > *nosco*.

novissimē: duela oso gutxi; azkenean // muy recientemente; finalmente.

novissimus, *a, um* (superl. > *novus*): azkena // el último;

□ *novissimum agmen* n: atzeguardia, atzealde // la retaguardia.

novitās, *ātis* f: berritasun; bitxitasun // novedad; cosa insólita.

novus, *a, um*: berri; bitxi, arraro // nuevo; extraño, singular;

□ *res novae* f pl: berrikuntza politikoak, iraultza // cambios políticos, revolución;

□ *homo novus* m: gizon berri (familia noblekoa izan gabe, senatari edo kontsul izendatua izanez gero, noble bihurtzen dena) // hombre nuevo (que no es de familia noble, pero al ser nombrado senador o cónsul entra en la nobleza).

nox, *noctis* f: gau // noche.

nūbēs, *is* f: hodei // nube.

nūbilus, *a, um*: hodeitsu; goibel // nubloso, nublado; sombrío.

nūbo, *nupsi, nuptum* 3: ezkondu da (emakumea) // casarse (la mujer).

nūdo 1: biluzi du, soildu du, gabetu du, babesgabetu du // desnudar, despojar, desproteger.

nūdus, *a, um*: biluzi, biluzik, soil, huts; -z soildu(a), babesgabe // desnudo; despojado de, desprotegido.

nūgae, *ārum* f pl.: huskeriak, inozkeriak // bagatelak, naderías, simplezas.

nullus, *a, um* [gen. *nullius*, dat. *nulli*] (*ne, ullus*): inongo... ez, bat ere ez, inor ere ez, ezer ere ez // ninguno;

□ *non nullus*: norbait, baten bat // algo;

□ *nullus non*: denak // todos.

num: (galdetzailera, ezezko erantzuna espero denean) ...ote...?, ...ala?; (zehargalderetan) ea // (partícula interrogativa cuando se espera respuesta negativa) ¿acaso?; (en interr. indir.) si.

nūmen, *inis* n: jainkozko nahimen, jainkozko borondate, jainkozko botere, jainkotasun, numen // voluntad divina, poder divino, divinidad, numen.

numero 1: zenbatu du, kontatu du; ordaindu du; -tzat eduki du // contar, numerar; pagar; contar entre.

numerus, *i* m: zenbaki, kopuru; atal; mota, sail; garrantzi; neurri; (pl.) matematikak; dibisio, destakamendu // número, cantidad; parte constitutiva; clase, categoría; consideración; medida; (pl.) matemáticas; división, destacamento;

□ *hostium numero, obsidum numero*: etsaien artean, bahitu gisa // en el número de los enemigos, en calidad de rehenes.

numida, *ae* m: numidiar, Numidiako // nómida.

nūminis, gen. > *numen*.

nummus, *i* m: txanpon, diru; sestertzio // moneda, dinero; sestercio.

numquam: adlg. inoiz ez // adv. nunca.

nunc: orain // ahora.

nunquam > *numquam*.

nuntio 1: berri eman du, jakinarazi du, iragarri du // anunciar.

nuntius, *a, um*: iragarle, berriemaile // anunciador, que anuncia.

nuntium, *ii* n: berri, mezu // noticia, mensaje.

nuntius, *ii* m: berriemaile, mezulari; berri; mezu // mensajero; anuncio, mensaje.

nūper: adlg. duela gutxi // adv. hace poco, recientemente.

nupsi, perf. > *nubo*.

nuptiae, *ārum* f pl.: ezteiak, ezkontza // boda.

nuptus, *a, um*, pp. > *nubo*.

nupta, *ae* f: emazte, emakume ezkondu(a) // mujer casada, esposa.

nurus, *ūs* f: errain // nuera.

nusquam: adlg. inon ez // adv. en ningún lugar

nūtrio 4: elikatu du, hazi du, sustatu du; zaindu du // nutrir, alimentar, criar; cuidar.

nūtrix, *īcis* f: inude, hazle // nodriza, criadora.

nūtus, *ūs* m: baiezko keinu (buruz egina); -en nahitara, -en nahiz, agindupe; astuntasun, grabitate // señal de asentimiento (con la cabeza); orden, voluntad; pesantez, gravedad.

nux, *nucis* f: intxaur // nuez.

nymphae, *ae* f: ninfa (maila apaleko jaingkosa, iturri, ibai, baso edo mendietan bizi dena) // ninfa (divinidad femenina menor que habita en ríos, fuentes, bosques y montes).

O

ō: o!, oi! // ¡oh!

ob: prep. ak. -(en)gatik, dela eta; -en aurrean // prep. ac. por, a causa de; ante.

obc... > *occ...*

ob-dormio 4: lozorroan egon // dormir profundamente.

ob-dormisco, *īvi*, - 3: lo hartu du, loak hartu du, lokartu da // dormirse.

ob-dūco, *duxī, ductum* 3: -en aurrean, inguruan edo aurka gidatu edo jarri du; estali du; ilundu du, itxi du; irrikaz edan du // conducir o colocar delante, alreedor o contra; cubrir, oscurecer, encerrar; beber con avidez.

ob-dūresco, *dūruī*, - 3: gogortu da // endurecerse.

ob-eo, *ii* [īvi], *itum* 4: -rantz, -en aurrera, -en aurka joan da; aurre egin dio; bisitatu du, ikustatu du, bere gain hartu du, bete du, egin du; hil da // ir hacia, ante, contra; afrontar; recorrer, pasar revista a; asumir, ejercer, cometer; morir.

ob-eram, ob-ero, ob-est... > *obsum*.

obfui > *offui*.

ob-icio, *iēci*, *iectum* > *obiicio*.

obii, perf. > *obeo*.

ōb-iicio, *iēci*, *iectum* 3 (*ob*, *iacio*): aurrean bota du, aurrean jarri du; erakutsi du, eskaini du, proposatu du; aurka jarri du; aurpegiratu dio; sartu dio // echar delante, poner delante; exponer, ofrecer, proponer; oponer; reprochar; infundir.

obitus, *a, um*, pp. > *obeo*.

obitus, *ūs* m: (eguzki) sartze; heriotza; hondamen // ocase; muerte; ruina.

obīvi, perf. > *obeo*.

oblātus, *a, um*, pp. > *offero*.

ob-lecto 1: atsegin eman dio, gozarazi du // deleitar, hacer disfrutar.

ob-lino, *lēvi*, *litum* 3: igurtzi du; gantzutu du, -z estali du // untar, embadurnar, cubrir.

ob-līquus, *a, um*: zehar, eslai // oblicuo, sesgado.

oblītus, *a, um*, pp. > *oblino*.

oblītus, *a, um*, pp. > *obliviscor*
ahaztu(a) (zentzu akt. eta pas.an); ahazkor // olvidado (en sentido act. y pas.).

oblīvio, *ōnis* f: ahazte, ahantzura // olvido.

ob-līviscor, *lītus sum* 3: ahaztu da-du // olvidarse de.

ob-mūtesco, *mūtui*, - 3: mututu da, isildu da, isilik egon // enmudecer, guardar silencio.

ob-oedio, *īvi*, *ītum* 4 (*ob*, *audio*): obeditu du-dio, esana egin du, men egin dio, kasu egin dio // obedecer, dar oídos a.

ob-ruo, *ruī*, *rutum* 3: estali du; lurperatu du; (pisuaz) abaildu du, nekatu du; gainezka egin dio // cubrir; enterrar; abrumar.

obsūrē: ilunik, ilunki, ilunpean // oscuramente, confusamente.

obsūrītās, *ātis* f: iluntasun // oscuridad.

obsūrō 1: ilundu du; (pas.) ilundu da // obscurecer; (pas.) oscurecerse.

obsūrūs, *a, um*: ilun // oscuro.

obsecrātio, *ōnis* f: eskari, erregu; errogatiba, otoitz handi, ageriko eta hotsandiko otoitz (jainkoei premiazko behar bat eskatzeko) // súplica; rogativa; oración pública y solemne (para aplacar a los dioses).

ob-secro 1 (*ob*, *sacro*): jainkoen izenean eskatu du, arrenka eskatu du, erregutu du; arren!, otoi! // pedir en nombre de los dioses, rogar con insistencia, suplicar; ¡por favor!, ¡en nombre del cielo!

obsecūtus, *a, um*, pp. > *obsequor*.

obsēdi, perf. > *obsideo* eta *obsido*.

ob-sequor, *secūtus sum* 3: amore eman dio, men egin dio, atsegin eman dio // ceder a, obedecer a, complacer a.

ob-servo 1: (arretaz) begiratu dio, so egin dio; zelatatu du; zaindu du; (legeak, arauak, etab.) bete ditu, gorde ditu; errespetatu du // observar; acechar, vigilar; cuidar; respetar.

ob-ses, *sidis* m eta f: (gerran) bahitu(a); bahi // rehén (de guerra); prenda.

ob-sideo, *sēdi*, *sessum* 2 (*ob*, *sedeo*): setiatu du; hartu du // asediar, sitiar; ocupar.

obsidio, *ōnis* f: setio // asedio, bloqueo.

obsidis, gen. > *obses*.

ob-sīdo, *sēdi*, *sessum* 3: setiatu du; okupatu du, (indarrez) hartu du // asediar, sitiar; ocupar, invadir.

ob-sisto, *stiti*, - 3: aurre egin dio, aurka egin du, kontra egin du // oponerse, resistir.

ob-solesco, *lēvi*, *lētum* 3: zaharkitua gelditu da // caer en desuso.

obstiti, perf. > *obsisto* eta *obsto*.

ob-sto, *stiti*, - [*obstātūrus*] 1: oztopoa izan da, eragozpena izan da // ser un obstáculo, oponerse a.

ob-stringo, *strinxi*, *strictum* 3: lotu du, heldu dio; soka batez estutu du; behartu du; gaizkide egin du; (bihurk.) errudun bihurtu da // atar, sujetar; apretar atando; obligar; hacer cómplice de, (refl.) hacerse culpable de;

□ *fidem obstringit*: hitza ematen du // empeña su palabra.

ob-struo, *struxi*, *structum* 3: aurrean eraiki du; oztopoa jarri dio, itxi du // construir delante; obstruir, cerrar.

ob-stupesco, *stupui*, - 3: txundituta gelditu da, sor eta lor gelditu, aho zabalik gelditu da // quedarse pasmado, quedarse atónito, boquiabierto.

ob-sum, *of-fui*, -: oztopoa izan da, eragotzi dio; kalte egin dio // ser un obstáculo; perjudicar.

ob-surdesco, *surdui*, - 3: gortu da, gor bihurtu da // ensordecer, volverse sordo.

ob-tempero 1: esana egin du, amore eman dio, men egin dio // obedecer, conformarse, someterse.

ob-tendo, *tendi*, *tentum* 3: parean hedatu du; (pas.) (-en) aurrean hedatu da; estali du; -en aitzakia jarri du // tender delante; (pas.) extenderse ante; cubrir, ocultar; pretextar.

obtentus, *a*, *um*, pp. > *obtendo* eta *obtineo*.

ob-testor 1: (jainkoak...) lekuko ipini ditu; arrenka eskatu du, otoiztu du // poner por testigo (a los dioses...); suplicar.

ob-tineo, *tinui*, *tentum* 2 (*ob*, *teneo*): atxiki du, eduki du, mantendu du; okupatu du, hartu du; erdietsi du, lortu du; iraun du // poseer, mantener, conservar, retener; ocupar; obtener; mantenerse.

ob-trunco 1: zatikatu du, hil du, lepoa moztu dio // despedazar, matar, degollar.

obtuli, perf. > *offero*.

ob-tundo, *tūdi*, *tū[n]sum* 3: kamustu du, sorgortu du, ahuldu du; gogaitu du // embotar, debilitar; fatigar, importunar.

ob-venio, *vēni*, *ventum* 4: agertu zaio, bidera irten zaio; tokatu zaio; gertatu da // presentarse a, salir al encuentro; tocar; ocurrir.

ob-viam: -en bidera // al encuentro de; □ *obviam Ciceroni ire*: Zizeronen bidera irten // ir al encuentro de Cicerón.

ob-vius, *a*, *um*: bidera ateratzen den; begien bistako, nabari; eskuragarri // que sale al paso; obvio, fácil de encontrar, accesible.

oc-caeco 1: itsutu du, ilundu du; estali du // cegar, oscurecer; recubrir.

occāsio, *ōnis* f: aukera, abagune // ocasión, oportunidad.

occāsus, *a, um*, pp. > *occido*.

occāsus, *ūs* m: eguzki sartze; mende-balde; erorialdi, hondamen // ocase; occidente; caída, ruina.

occidens, *ntis* m: mende-balde, sartalde // occidente, oeste.

oc-cido, *cidi, cāsum* 3 (*ob, cado*): erori da, hil da, gainbehera etorri da // caer, morir, declinar.

oc-cīdo, *cīdi, cīsum* 3 (*ob, caedo*): hil du; moztu du // matar; cortar.

oc-clūdo, *clūsi, clūsum* 3 (*ob, claudio*): itxi du // cerrar, encerrar.

oc-culo, *cului, cultum* 3: ezkutatu du // ocultar.

occultē: ezkutuan // a escondidas.

oc-culto 1: ezkutatu du // ocultar.

occultus, *a, um*, pp. > *occulo*
ezkutu // oculto.

occului, perf. > *occulo*.

occupātio, *ōnis* f: zeregin, egiteko; hartze, -z jabetze, okupatze // ocupación; toma de posesión.

oc-cupo 1 (*ob, capio*): (aurretik) hartu du; -z jabetu da, eskuratu du // ocupar (antes que otros); apoderarse.

oc-curro, [*cu*]*curri, cursum* 3 (*ob, curro*): bidera lasterka atera da, -ekin topo egin du; aurre egin dio; aurkeztu da; erantzun du // correr al encuentro, encontrarse con; hacer frente; presentarse; replicar.

Ōceanus, *i* m: Ozeano, lur osoa inguratzen duen itsaso handia; ozeano

Atlantikoa // Océano, gran mar que rodea toda la tierra; el océano Atlántico.

ōcior, *ius* (konp.): lasterrago, arinago // más veloz.

octāvus, *a, um*: zortzigarren; zortziren // octavo.

octingentēsimus, *a, um*: zortziehun-garren; zortziehun // octingentésimo.

octingenti, *ae, a*: zortziehun // ochocientos.

octō dekl. ez.: zortzi // ocho.

octōber, *bris, bre*: urriko, urriaren // de octubre.

octōber, *bris* m: urri // octubre.

octōgēsimus, *a, um*: laurogeigarren; laurogeiren // octogésimo.

octōgintā dekl. ez.: laurogei // ochenta.

octōni, *ae, a*: zortzina; zortzinako // ocho cada uno; de ocho en ocho.

oculus, *i* m: begi // ojo.

ōdi, *ōdisse* def.: gorrotatu izan du, gorroto izan du-dio // odiar.

odium, *ii* n: gorroto // odio.

odor, *ōris* m: usain // olor.

odōrātus, *a, um*: usaintsu, lurrintsu // oloroso, perfumado.

odōrātus, *ūs* m: usaimen; usaintze // olfato; acción de oler.

offēci, perf. > *officio*.

offectus, *a, um*, pp. > *officio*.

of-fendo, *fendi, fensum* 3: (zerbait) jo du, talka egin du; huts egin du; gaitzitu da; -ekin topo egin du; mindu du, zaurtu du, gaitzitu du // chocar, tropezar; fracasar; cometer una falta; ofenderse; golpear; encontrar; ofender, disgustar.

offensio, *ōnis* f: behaztopa, elkar jotze; min, ondoez, eritasun, kolpe, zauri;

porrot, atsekabe; ospearen galera; herra, ezinikusi // tropiezo, choque; molestia, enfermedad, lesión; fracaso, desgracia; descrédito; aversión, enemistad.

offensus, *a, um*, pp. > *offendo*

sumindu(a), gaitzitu(a); gorrotagarri // ofendido, irritado; odioso.

of-fero, *ob-tuli, ob-lātum* 3: aurean jarri du, erakutsi du, aurkeztu du; eskaini du, eman du; -en aurka jarri du // poner delante, presentar, mostrar; ofrecer, proporcionar; oponer, exponer.

officīna, *ae* f: fabrika, lantegi // fábrica, taller.

of-ficio, *fēci, fectum* 3 (*ob, facio*): oztopo egin dio; kalte egin dio // estorbar, impedir; dañar.

of-ficium, *ii* n: zerbitzu, eginbide; eginbehar, betebehar; gizalege, gizarte-eginkizun // servicio, función; deber, obligac[i]n; cortesan[ia], deber social.

offui, perf. > *obsum*.

olea, *ae* f: olibondo; oliba // olivo; oliva, aceituna.

oleo, *ui, -2*: usaina izan du // oler.

oleum, *i* n: olio // aceite.

ōlim: adlg. behinola, aspaldi // adv. en otro tiempo, hace mucho, antiguamente.

olui, perf. > *oleo*.

ōmen, *inis* n: (zeruko) seinale, (zeruko) zantzu, iragarpen // presagio, se[ñal].

o-mitto, *mīsi, missum* 3: libre utzi du, utzi du; -i utzi dio, -i uko egin dio; ez du esan, baztertu du // soltar, dejar, deponer; renunciar a, dejar de; omitir, desechar.

omnīnō: adlg. erabat, zeharo, osoki; guztira // adv. completamente, enteramente, en total.

omnis, *e*: dena, guzti // todo.

onero 1: zamatu du // cargar.

onus, *eris* n: pisu; zama // peso, carga.

onustus, *a, um*: zamatu(a), bete(a) // cargado, lleno de.

opera, *ae* f: lan, neke, jarduera, ahalegin; zerbitzu; lanaldi; langile // trabajo, actividad, labor, esfuerzo, aplicaci[3]n; servicio; jornada; obrero;

□ *operam dare*: ahalegindu da // poner empe[ño];

□ *operae pretium est*: merezi du // merece la pena.

o-perio, *perui, pertum* 4: estali du, ezkutatu du // cubrir; ocultar.

operis, gen. > *opus*.

opi-fex, *ficis* m eta f: egile, sortzaile; langile // artifice, creador; obrero, trabajador.

opīnio, *ōnis* f: iritzi(a) // opini[3]n.

opīnor 1: iritzia izan du // opinar.

opi-parus, *a, um*: oparo, ugari // op[ar]o, copioso.

opis, gen. > *ops*.

oportet, *uit, -2*: komeni da, behar da // conviene, es necesario.

op-perior, *pertus sum* 4: -en zain egon, itxaron dio-du // esperar, aguardar.

oppidānus, *a, um*: (Erroma ez den) hiriko, udalerriko // de una ciudad o de un municipio (que no es Roma).

oppidānus, *i* m: hiritar, biztanle // ciudadano, habitante.

oppidum, *i* n: gotorleku, hiri gotortu; hiri // plaza fuerte, ciudad fortificada; ciudad.

op-pōno, *posui, positum* 3: aurean jarri du; -en arriskuan jarri du; eragozpena adierazi du, argudiatu du; aurka jarri du

// poner delante; exponer a; objetar; oponer.

opportūnē: aukeran, une egokian // oportunamente, a tiempo, a punto.

opportūnitās, *ātis* f: egokiera, aukera; abantaila // oportunidad; ventaja; ocasión favorable.

opportūnus, *a, um:* egoki, aukerako, apropos; aldeko, onuragarri // conveniente, oportuno, ventajoso, apropiado.

oppositus, *a, um,* pp. > *oppono.*

opposui, perf. > *oppono.*

op-primo, *pressi, pressum* 3 (*ob, premo*): estutu du, hertsatu du, zapaldu du, menderatu du; estali du; harrapatu du // apretar, oprimir, comprimir, dominar; cubrir, ocultar; sorprender.

oppugnātio, *ōnis* f: eraso; setio // ataque; asedio.

oppugno 1 (*ob, pugno*): eraso dio; setiatu du // atacar, sitiar.

ops, *opis* f: indar, botere; (pl.) baliabideak, indarrak, lagun botere-tsuak, ondasunak; indar armatuak // poder, fuerza; (pl.) medios, poder, influencias, riquezas; fuerzas armadas; □ *summā ope*: eginahalean // con todas sus fuerzas.

optābilis, *e:* desiragarri // deseable.

optimātes, *ium* m pl.: nobleak, aitoren semeak, aristokraten alderdi kontserbadore // los nobles, el partido conservador aristocrático.

optimē: oso ondo, ezin hobeki, primeran // muy bien, perfectamente.

optimus, *a, um* (superl. > *bonus*): onen, hoberen // óptimo, el mejor.

optio, *ōnis* f: aukera, hautaketa, hautamen // opción, elección, facultad de elegir.

opto 1: opa dio; hautatu du // desear; escoger.

opulentus, *a, um:* oparo, aberats; boteretsu, eragin handiko // opulento, rico; poderoso; influyente.

opus, *eris* n: lan; egintza; eraikin; gotortze-lanak; beharrezkoa // trabajo, obra; acto; construcción; trabajos de fortificación; lo necesario;

□ *mihi opus est argentum*: dirua behar dut // necesito dinero;

□ *nobis opus est amore*: maitasun behar dugu // necesitamos amor.

ōra, *ae* f: kostalde, itsasertz; ertz, hegi // costa, orilla; borde.

ōrāculum, *i* n: orakulu, jainkoen erantzun // oráculo.

ōrātio, *ōnis* f: hitzaldi, solas; hitz, mintzamen; hizketa, hizkera, mintzaira // discurso; palabra, habla, facultad del habla; modo de hablar.

ōrātor, *ōris* m: hizlari; mandatari // orador; embajador.

orbis, *is* m: zirkulu, biribil; biribil edo bola baten itxurako edozer, uztai, eraztun, gurpil, orbita; lurbira // círculo; cualquier objeto circular o esférico, aro, anillo, rueda, órbita; globo terráqueo.

ordinātim: adlg. ordenaz, ordenan // adv. ordenadamente, en orden.

ordino 1: antolatu du, arautu du // ordenar, regular, organizar.

ordior, *orsus sum* 4: hasi da-du // comenar.

ordo, *inis* m: ilara, lerro, errenkada; ordena; (gizarte-) klase, maila; hurrenkera, segida // fila, hileria; orden, clase social, rango; sucesión, distribución regular.

oriens, *ntis* (p. pres. > *orior*) m: ekialde; eguzki atera berria // oriente; el sol naciente.

origo, *inis* f: jatorri // origen.

orior, *ortus sum* [*oritūrus*] 4: jaio da // nacer.

ōris, gen. > *os*, *oris*.

ornāmentum, *i* n: hornidura; apaindura, apaingarri; ohorezko sari // equipo; adorno; distinción.

ornātus, *a, um*, pp. > *orno*

hornitu(a); apaindu(a), edertu(a); doctore; agurgarri // provisto; adornado; elegante; distinguido.

ornātus, *ūs* m: hornidura; apaindura, apaingarri // equipo; adorno, ornato.

orno 1: hornitu du; apaindu du, edertu du // equipar, pertrechar; adornar; embellecer.

ōro 1: hitz egin du; arren eskatu du // hablar; rogar.

orsus, *a, um*, pp. > *ordior*.

ortus, *a, um*, pp. > *orior*.

ortus, *ūs* m: jaiotza, jaiotze; sorrera; (izar baten) irteera // nacimiento, origen; salida (de un astro).

ōs, *ōris* n: aho; aurpegi // boca; rostro.

os, *ossis* [gen. pl. *ossium*] n: hezur // hueso.

osculum, *i* n: ahotxo; muxu, pot // boquita; beso.

ostendo, *tendi, tensum* [edo *tentum*] 3: erakutsi du, aurkeztu du, agertu du, azaldu du; adierazi du // mostrar, presentar, exhibir, exponer; manifestar, declarar que.

ostentātio, *ōnis* f: erakuseria, arrandia; erakusketa // ostentación; demostración.

ostento 1: erakutsi du, aurkeztu du, agertu du; harrokeriaz erakutsi du // mostrar, presentar, ofrecer; prometer; ostentar.

ostium, *ii* n: ate, sarrera; (ibai-) aho // puerta, entrada; desembocadura.

ōtiōsē: aisian, patxadan // ociosamente, tranquilamente.

ōtiōsus, *a, um*: zereginik gabeko, ez lanpetu(a), alferkerian dagoen, aisian dagoen; politikatik urrundu(a); lasai // ocioso, desocupado; apartado de la política; sosegado.

ōtium, *ii* n: aisia, atsedendaldi, aisialdi; lasaitasun // ocio, descanso, tiempo libre; sosiego.

ovans, *ntis*, p. pres. > *ovo*

obatioaren ohorez; garaile, pozik eta harro; pozez oihuka // con una ovación; triunfante; dando gritos de alegría.

ovātio, *ōnis* f: obatio, garaipen txikiago (ardi bakar bat hiltzen zen) // ovación, triunfo menor (en que sólo se sacrificaba una oveja).

ovis, *is* f: ardi // oveja.

ovo 1: obatioa lortu du; pozez oihuka aritu da; pozik eta harro egon // obtener la *ovatio*; dar voces de alegría; estar alegre y orgulloso.

ōvum, *i* n: arrautza // huevo.

P

pābulatio, *ōnis* f: bazka biltze // acción de forrajear.

pābulātor, *ōris* m: bazka-biltzaile // forrajeador.

pābulor 1: bazka bildu du // forrajear.

pābulum, *i* n: bazka // pasto, forraje.

pācis, gen. > *pax*.

paciscor, *pactus sum* 3: itundu da-du, ituna egin du, hitzartu du, elkar hartu dute // pactar, estipular, convenir en, comprometerse a.

pāco 1: baketu du // pacificar.

pactum, *i* n: itun, hitzarmen // pacto, tratado;

□ (ab.) *pactō*: era // modo, manera;

□ *quo pacto*: nola // como, cómo;

□ *nullo pacto*: inola ere // de ningún modo.

pactus, *a, um*, pp. > *paciscor* eta *pango*.

paedagōgus, *i* m: pedagogo (haurrei laguntzen zien esklabo), haur-hezitzaile // pedagogo (esclavo que acompañaba a los niños), ayo, preceptor.

paene: adlg. ia // adv. casi.

paen-insula, *ae* f: penintsula, erdiuharte // península.

paenitet, *ui*, - (inpers.) 2: damutu da, damu da, damu zaio (nor ak. zertaz gen) // arrepentirse, estar descontento (alguien ac. de algo gen.);

□ *Marium paenitet epistulae*: Mario gutunaz damu da // Mario se arrepiente de la carta.

pāgina, *ae* f: orri, orrialde; idazki // hoja, página; escrito.

pāgus, *i* m: herrixka; eskualde, kantona-mendu // aldea; distrito, cantón.

pāla, *ae* f: aitzur, pala; (harribitxiaren) kokadura // azada, pala; engaste (de la sortija).

palam: adlg. jendaurrean, agerian // adv. públicamente, abiertamente.

palea, *ae* f: lasto // paja.

palleo, *ui*, - 2: zurbil egon, zurbildu da // estar pálido, palidecer.

palma, *ae* f: ahur, esku-azpi; palmondo; palma (adar, garaipenaren ikur) // palma (de la mano); palmera; palma (rama, emblema de victoria).

palūdāmentum, *i* n: jeneralen kapa gorri // manto rojo de los generales.

pālus, *i* m: zutoin, hesola // poste, palo, estaca.

palūs, *ūdis* f: zingira // pantano.

pando, *pandi*, *passum* edo *pansum* 3: hedatu du, zabaldu du; ireki du; adierazi du // extender, desplegar; abrir; revelar, indicar.

pango, *panxi* [edo *pēgi* edo *pepigi*], *pactum* 3: iltzatu du, landatu du, finkatu du; idatzi du; (*pepigi* perf.ko formetan bakarrik) ituna egin du, adostu du // clavar, plantar, fijar; escribir; (sólo en las formas del perf. *pepigi*) pactar, estipular, acordar.

pānis, *is* m: ogi // pan.

papȳrus, *i* f: papiro, paper // papiro; papel.

pār, *paris*: berdin, pare; kideko, antzeko; komenigarri; biko, bikote, lagun // igual, semejante, par; conveniente; pareja, compañero.

parco, *peperci* [*parsi*], *parsus* 3: (dat.ekin) aurreztu du; errespetatu du, begirune dio, gorde du; -tik begiratu da, ez du egin, -(r)i utzi dio // (con dat.) ahorrar; respetar, conservar intacto; abstenerse de, cesar.

pārens, *ntis* m eta f: aita edo ama, (m pl.) gurasoak // padre o madre, (m pl.) los padres.

pāreo, *ui, itum* 2: agertu da; men egin dio, -en menpean egon // aparecer; obedecer;

□ (inperis.) *paret*: bistan da..., ezagun da... // es manifiesto que...

pariēs, *etis* m: pareta // pared.

pario, *peperi, partum* [*paritūrus*] 3: erditu da, umea egin du; sortu du; lortu du, eskuratu du // parir; producir; adquirir, procurarse.

pariter: adlg. era berean; batera, aldi berean // adv. igualmente; a la vez;

□ *pariter ac, atque*: bezala // del mismo modo que.

parma, *ae* f: erredola, ezku biribil txikia // rodela, pequeño escudo redondo.

paro 1: prestatu du, eskuratu du // preparar; proporcionar; procurarse.

pars, *partis* f: zati, parte, atal; alde; alderdi; (aktore baten) paper, betekizun // parte, porción; fracción, partido político; lado, lugar; papel (de un actor), función;

□ *pars...* *pars*: batzuk... besteak // unos... otros;

□ *pro meā parte*: nire aldetik // por mi parte;

□ *maximā parte, in maximam partem*: gehienbat // la mayor parte;

□ *in bonam partem*: zentzu onean // en buen sentido.

parti-ceps, *cipis* (*pars, capio*): partaide, parte-hartzaile; kide // partícipe, participante; socio.

partim: adlg. neurri batean // adv. en parte;

□ *partim... partim...*: batzuk... besteak... // unos... otros...

partior 4: banatu du, zatitu du // repartir, dividir.

parturio, *īvi*, - 4: erditzeko egon, erdimez egon // estar de parto, sufrir dolores de parto.

partus, *a, um*, pp. > *pario*.

partus, *ūs* m: erditze; haurgintza; sabelaldi; umealdi; umeak, kumeak // parto; hijos.

pārui, perf. > *pareo*.

parum: adlg. gutxi; ez oso // adv. poco.

parvus, *a, um*: txiki, gutxi, labur; pixka bat, apur bat // pequeño, poco, breve;

□ *parvi facere*: gutxietsi du // tener en poco.

pasco, *pāvi, pastum* 3: bazkatu du, elikatu du; bazkatu da // apacentar, alimentar; pacer.

pascor, *pastus sum* 3: bazkatu da, -z elikatu da // pacer, alimentarse.

passim: adlg. nonahitik, edonondik, alde guztietatik // adv. por todas partes.

passus, *a, um*, pp. > *pando* eta *patior*.

passus, *ūs* m: urrats, pauso // paso;

□ *mille passus*: milia (1.479 metro) // milla (1.479 metros).

pastillus, *i* m: (hats gozoa lortzeko) pastilla // pastilla (para perfumar el aliento).

pastor, *ōris* m: artzain, unai, zerrizain, abelzain // pastor.

pastus, *a, um*, pp. > *pasco* eta *pascor*.

pate-facio, *fēci, factum* 3: ireki du, agerian jarri du // abrir, descubrir.

pateo, *ui*, - 2: irekita egon; -ra erraz iristen da, iritsi-erraza da; agerian egon,

begien bistan egon // estar abierto, ser accesible; estar a la vista;

□ (inperts.) *patet*: bistan da... // es evidente que...

pater, *tris* m: aita; pl.: arbasoak; senadoreak // padre; pl.: antepasados, senadores.

paternus, *a, um*: aitaren, aita-, aitaren aldeko // paterno, del padre.

patiens, *ntis*, p. pres. > *patior*
jasaten duen, pairatzen duen; jasankor, eramankor // que soporta; paciente, sufrido.

patienter: egonarriz, eraman onez // pacientemente.

patientia, *ae* f: jasate; egonarri, pairamen, pazientzia; mendekotasun // el sufrir, el soportar; paciencia, resistencia; sumisión.

patina, *ae* f: kazola, eltze; azpil, erretilu // tartera, cacerola; fuente.

patior, *passus sum* 3: jasan du, pairatu du, sufritu du // sufrir; soportar; tolerar.

patricius, *a, um*: patrizio (Erromako jatorrizko hiritarren familietakoa) // patricio (descendiente de los primeros ciudadanos de Roma).

patris, gen. > *pater*.

patrius, *a, um*: aitaren, aita-, aitaldeko; aberriko, aberriaren, aberri- // paterno, del padre; patrio.

patria, *ae* f: aberri // patria.

patro 1: egin du, gauzatu du, burutu du // ejecutar, realizar, perpetrar; terminar.

patrōcinium, *ii* n: babes, defentsa // protección, defensa.

patrōnus, *i* m: patro, babesle, zaindari; abokatu // patrono, protector, defensor; abogado.

patruus, *i* m: aitaldeko osaba // tío paterno.

patui, perf. > *pateo*.

paucitās, *ātis* f: urritasun, laburtasun // poquedad, escasez.

paucus, *a, um*: gutxi, urri, eskas // poco.

paulātim: adlg. pixkanaka // adv. poco a poco, gradualmente.

paulisper: adlg. pixka bat(ean), apur bat(ean) // adv. un poco, por poco tiempo.

paulus, *a, um*: guxti, urri, eskas // poco, escaso;

□ *paulo melior, paulo post*: pixka bat hobe, apur bat geroago // un poco mejor, un poco después.

pauper, *eris*: behartsu, pobre, txiro // pobre.

paupertās, *ātis* f: pobrezia, txirotasun // pobreza.

paveo, *pāvi*, - 2: beldur izan da, izutu da // tener miedo, sentir pavor.

pāvi, perf. > *pasco* eta *paveo*.

pavidus, *a, um*: izutu(a) // lleno de pavor.

pavimentātus, *a, um*: zolatu(a), lauza-tu(a) // pavimentado, enlosado.

pavimentum, *i* n: zoru, zoladura // suelo, pavimento.

pavio 4: zapaldu du // apisonar.

pāvo, *ōnis* m: pauma, hegazterren // pavo real.

pavor, *ōris* m: izuikara // pavor.

pax, *pācis* f: bake // paz.

peccātum, *i* n: hutsegite, huts, erru, oker, bekatu // acto culpable, culpa, falta, error, pecado.

pecco 1: bekatu egin du, huts egin du // pecar, fallar, cometer una falta.

pecoris, gen. > *pecus*.

pectus, *oris* n: bular; bihotz; gogo // pecho, corazón; pensamiento;

□ *toto pectore amare*: bihotz-bihotzez maitatu // amar de todo corazón;

□ *in pectore*: gogoan // mentalmente.

pecūlium, *ii* n: esklabo baten aurrezkiak; norberaren ondasun txikiak // peculio, ahorros de un esclavo; pequeño patrimonio personal.

pecūnia, *ae* f: diru; ondasunak // dinero; fortuna.

pecus, *oris* n: azienda, abereak, abertalde, artalde // ganado, rebaño.

pecus, *udis* f: abelburu, abere // res, cabeza de ganado.

pedes, *itis* m: oinezko, oinezko soldadu // peatón, que va a pie; infante, soldado de infantería.

pedester, *tris*, *tre*: oinezko, oin-; prosazko; arrunt // pedestre, de a pie, de infantería; en prosa; prosaico.

pedica, *ae* f: zepo, oin-bilur, lakio // cepo, grillete, lazo para trabar los pies.

pedis, gen. > *pes*.

peditātus, *ūs* m: infanteria, oinezko soldaduak // infantería.

pēiero 1: zina hautsi du, zin faltsua egin du // perjurar, jurar en falso.

pēior, *pēius* (konp. > *malus*): txarrago, okerrago; gaizkiago // peor.

pelagus, *i* n: itsas zabal, ozeano, itsaso // alta mar, piélagos, el mar.

pellis, *is* f: larru, azal // piel, cuero.

pello, *pepuli*, *pulsum* 3: bultzatu du, abian jarri du, mugimenduan jarri du; jaurti du; inarrosi du; atzera bota du; jo

du // empujar, impulsar, poner en movimiento; arrojar; conmovier; rechazar; golpear.

Penātes, *tium* m pl.: Penateak (fami-liaren, etxearen eta aberriaren jainko babesleak); etxe, bizileku // Penates (dioses protectores del hogar y de la patria); casa, morada.

pendeo, *pependi*, *pensum* 3: zintzilik egon, (-tik) esekita egon; -i adi egon; -en mende egon; zalantzan egon, dudamudatan egon // colgar de, estar colgado; estar pendiente de; depender de; estar indeciso, vacilante.

pendo, *pependi*, *pensum* 3: pisatu du; ordaindu du, kitatu du; gogoan erabili du, kontuan hartu du, aztertu du; (gen.ekin) balioetsi du, aintzat hartu du // pesar; pagar; estimar, apreciar; examinar; (con gen.) estimar en;

□ *parvi, minoris, nihili pendo*: gutxien dut, gutxiagotzat jotzen dut, ez dut ezertzat jotzen // estimo en poco, en menos, en nada.

penes: prep. ak. -en esku // prep. de ac. en poder de, en manos de.

penetro 1: -n sartu da, barruratu da // penetrar.

penitus: adlg. sakonki // adv. profundamente, a fondo.

penna, *ae* f: luma // pluma.

pensio, *ōnis* f: (epe baten, interesen, errentaren) ordainketa // pago (de un plazo, de intereses, de alquiler).

penso 1: pisatu du, haztatu du; balioztatu du, epaitu du; buruan erabili du; orekatu du, konpentsatu du, kontrapisatu du, ordaindu du; trukatu du, erosi du // pesar, sopesar; apreciar, juzgar, valorar; meditar; compensar, contrapesar, pagar; cambiar, comparar.

pensum, *i*: eginkizun, zeregin, egiteko // tarea

pensus, *a, um, pp.* > *pendeo* eta *pendo*
baliozko, balioitsu // valioso;
□ *illi nihil pensi est, nihil pensi habet*:
bost axola zaio // le importa un bledo.

penus, *i m* > *penus, oris*.

penus, *oris n*: jakitoki, janaritegi;
elikagaiak, bizigaiak // despensa; provi-
siones, víveres.

pependi, perf. > *pendeo* eta *pendo*.

peperci, perf. > *parco*.

peperi, perf. > *pario*.

pepigi, perf. > *pango*.

pepuli, perf. > *pello*.

per: prep. ak. -n zehar, -tik, -n; -gatik,
dela eta; -n bidez // prep. de ac. a través
de, por, durante; por medio de;
□ *per manus*: eskuz esku // de mano en
mano.

per-agro 1: ibili du, -en zehar ibili da,
-n zehar joan da; bisitatu du, ikuskatu
du // recorrer, pasar por; visitar.

per-cello, *culi, culsum* 3: eraitsi du,
erorarazi du, lurrera bota du; zauritu du;
asaldatu du // derribar, abatir; herir;
perturbar.

percēpi, perf. > *percipio*.

perceptio, *ōnis f*: biltze, bilketa;
hautemate, pertzepzio // recolección;
percepción, noción.

perceptus, *a, um, pp.* > *percipio*.

per-cipio, *cēpi, ceptus* 3 (*per, captus*):
jaso du, hartu du; (zentzuen bidez
hartu) hauteman du, aditu du // recoger;
recibir; percibir.

percontatio, *ōnis f*: galdera; galdeketa,
galdetze // pregunta; interrogación.

per-contor 1: galdekatu du // inte-
rrogar, indagar.

per-crēb[r]esco, *c[r]ēbui*, - 3: (berria,
esamesa) zabaldu da, hedatu da // divul-
garse, extenderse.

percucurri, perf. > *percurro*.

perculi, perf. > *percello*.

perculsus, *a, um, pp.* > *percello*.

per-curro, [*cu*]*curri, cursum* 3: -n
zehar lasterka egin du, lasterka igaro du;
(leku, herri) osan barrena ibili da;
gainbegiratu bat egin dio, gainetik
irakurri du; gaingiroki azaldu du //
correr a través de, atravesar corriendo;
recorrer; recorrer (con la vista); explicar
brevemente.

per-cutio, *cussi, cussum* 3 (*per,*
quatio): zauritu du, kolpatu du, jo du,
hil du; inarrosi du, asaldatu du;
txanponak egin ditu, irarri du // golpear,
herir, matar, abatir; conmove; acuña.

perdidi, perf. > *perdo*.

perdidici, perf. > *perdisco*.

per-disco, *didici*, - 3: ondo, sakon, ze-
haro ikasi du // aprender bien, a fondo.

perditus, *a, um, pp.* > *perdo*
galdu(a), gizagaldu, emaztegaldu // per-
dido, depravado.

per-do, *didi, ditum* 3: galdu du; hondatu
du; xahutu du // perder; echar a perder;
malgastar

per-dūco, *duxi, ductum* 3: -raino
eraman du, -enganaino eraman du; ...
arte luzatu du; erakarri du, gogatu du //
conducir hasta; prolongar hasta; atraer,
persuadir.

peregrīnor 1: atzerrian ibili da, atzerri-
tik bidaia egin du, atzerrian bizi izan da
// peregrinar, viajar por el extranjero,
vivir en el extranjero.

peregrīnus, *a, um* (*per, ager*): atzeritar, atzerriko, arrotz, ez hiritar // extranjeru, no ciudadano; extraño.

perēmi, *perf.* > *perimo*.

peremptus, *a, um*, *pp.* > *perimo*.

per-ennis, *e*: betiereko, iraunkor, urte osoan dirauen // perenne, constante, que dura un año.

per-eo, *ii* [*īvi*], *itum* 4: (eufemismo) hil da, galdu da // perecer, perderse.

per-facilis, *e*: oso erraz // muy fácil.

perfēci, *perf.* > *perficio*.

perfectus, *a, um*, *pp.* > *perficio*
burutu(a) // acabado.

per-fero, *tuli, lātum* 3: azkeneraino eramandu, helarazi du; burutu du, bururatu du; azkeneraino, egonarriz jasan du; (pas.) iritsi da // llevar hasta el fin, hacer llegar; llevar a término; soportar hasta el fin, con paciencia; (pas.) llegar;

□ *perfertur ad me*: (berri bat) iritsi zait // me ha llegado que.

per-ficio, *fēci, fectum* 3 (*per, facio*): burutu du, buru eman; osatu du, biribildu du; amaitu du, bete du; lortu du // llevar a cabo, terminar; hacer completa o perfectamente; acabar, cumplir; lograr.

perfidia, *ae f*: zinauste; azpikeria, leialtasunik ez(a) // perfidia, deslealtad.

per-fidus, *a, um*: zinausle, gezurrez zin egiten duen; desleial, fede gaiztoko // pérfido, que jura en falso; desleal, de mala fe.

per-fringo, *frēgi, fractum* 3 (*per, frango*): apurtu du, puskatu du, txikitu du; desegin du, ezereztu du; indarrez ireki du // romper, hacer pedazos; destruir, deshacer; abrir a la fuerza.

perfūdi, *perf.* > *perfundo*.

perfuga, *ae m*: iheslari // fugitivo.

per-fugio, *fūgi-* 4: desertatu du, ihes egin du, (etsaien aldera) aldatu da; babesa hartu du // desertar, pasarse (al enemigo); refugiarse.

perfugium, *ii n*: babesleku; ihesbide // refugio, escapatoria.

per-fundo, *fūdi, fūsum* 3: -n isuri du; ihintzatu du, ureztatu du, busti du, blaitu du, bainatu du; -ztatu du; bete du // verter en; rociar, regar, mojar, emparpar, bañar; recubrir de; inundar.

pergo, *per-rexi, per-rectum* 3 (*per, rego*): aurrera jarraitu du, -raino jarraitu du; -ten jarraitu du; -ra jo du // proseguir, continuar, seguir hasta el final; dirigirse a.

per-grātus, *a, um*: oso atsegin // muy agradable.

per-hibeo, *hibui, hibitum* 2 (*per, habeo*): aurkeztu du, hornitu du; esan du, kontatu du; -tzat jo du, izendatu du // presentar, proporcionar; decir, contar; declarar, nombrar.

per-horresco, *rrui, -* 3: ikaratu da, izularritu da; higuin du, beldur dio // estremecerse, horrorizarse; temer, detestar.

perīclitor 1: probatu du, saiatu du; arriskatu du; arriskuan egon // poner a prueba, experimentar; poner en juego; estar en peligro.

perīclōsus, *a, um*: arriskutsu // peligroso.

perīculum, *i n*: proba; arrisku // prueba; peligro.

perii, *perf.* > *pereo*.

per-imo, *ēmi, emptum* 3 (*per, emo*): suntsitu du, ezereztu du; ezeztatu du,

bertan behera utzi du; hil du // destruir, aniquilar, suprimir; matar.

peristylum, *i* n: peristilo // peristilo.

peritē: trebeki, antzez, ezagueraz // hábilmente, con arte, con pericia.

peritia, *ae* f: trebetasun, eskarmentu // pericia, práctica, experiencia.

peritus, *a, um*, pp. > *pereo*.

peritus, *a, um*: aditu(a), dakien // perito, conoecedor.

per-iūro > *peiero*.

perīvi, perf. > *pereo*.

perlātus, *a, um*, pp. > *perfero*.

per-lego, *lēgi*, *lectum* 3: arretaz irakurri du; burutik burura irakurri du // leer atentamente; leer hasta el final.

per-maneo, *mansi*, *mansum* 2: luze iraun du, berean jarraitu du, -i eutsi dio // perdurar, persistir, perseverar.

per-mitto, *mīsi*, *missum* 3: jaurti du, bota du, egotzi du, bidali du; -en esku, -en kontu, -en ardurapean utzi du; utzi dio, onartu dio // lanzar, enviar; confiar, dejar en manos de; permitir, conceder.

per-moveo, *mōvi*, *mōtum* 3: astindu du, inarrosi du; hunkitu du; akitu du; piztu du, eragin du // agitar; conmover, impresionar; abatir; mover a, excitar, suscitar.

per-multus, *a, um*: pila bat, hamaika, ugari // muchísimo, gran número de.

permultum: adlg. askoz, erabat // adv. extremadamente, muchísimo.

